

**JOSE MARIA AGIRRE,  
'XABIER LIZARDI'-REN MENDEURRENA  
(1896-1996)**



## XABIER AGIRRE LIZARDIREN MENDEURRENA

*Zarautz, 1996-IV-26*

*Imanol Murua, herriko alkatea*

Jaun-andereok, arratsaldeon eta ongi etorri guztioi.

Aurreko astean neuk izan zuen ohorea ekitaldi hauei hasiera emateko, Xabier Lizardiren jaiotzaren mendeurrenaren ospakizunei, hain zuzen ere. Benetan pozgarria izan zen une hura, baina azken ekitaldi akademikoa egitera goazen momentu hau are pozgarriagoa dela esango nuke, bai niretzat, bai parte hartu dugun guztiontzat. Mendeurren honetan jarri genituen helburuak bete direla esango nuke. Oso ekitaldi gozoak izan dira, jendeak erantzun du, eta —guk nahi genuen bezala— batez ere gazteek. Mendeurreneko ekitaldi hauek antolatzeko elkartu ginenean, zenbait zalantza sortu zitzaikigun: ze giro eman, gauza handiki bat egin, edo zerbait praktikoagoa egingo ote genuen? Horretaz eztabaidatu genuen, eta gauza hauetan ni baino jakintsuago direnei entzun ondoren, noski, handitasunari baino beste zerbaiti gehiago begiratu behar zitzaiola erabaki genuen. Alegia, Lizardiren mendeurrena zenez, berari omen egitearekin batera, bere pentsakera, lana eta olerkiak herriari, eta batez ere gazteei zabaltzeari. Uste dut gure nahia lortu dugula, ekitaldi guztietan ikusi da erantzuna: gazteentzako hitzaldietan, erakusketetan, errezitaletan, antzezpenetan, etab., eta hori benetan pozgarria da.

Mendeurrenari hasiera eman genionean esan nuen saiatuko ginela, gure maila apalean, bultzadatxo bat ematen Lizardik hain itxaropentsu ikusten zuen asaba zaharren baratzaren etorkizuna egia mami bihur dadin. Lehenaren muina baratz berrian aldatu, eta gure gazteei begira bereziki, Lizardik amesten zuen etorkizun hura irits dadin, Lizardik maitatzen zuena maitatuz hau da, Euskal Herria, euskara, izadia...

Ezin esango dut hori lortu dugunik, baina gure ahalegin apalak oso erantzun ona izan duela esan dezaket, eta horrexegatik itxaropentsu gaudela.

Lizardik gaurkotasunik ez duela galdu, eta ez duela galduko ere esan nuen, eta hori garbi kusi ahal izan dugu Donostia, Tolosa eta Zarautzen egin diren ekitaldi eta ospakizun hauetan. Erantzuna, partaidetza oso ona izan da, eta horregatik parte hartu duten guztiei eskerrak eman beharrean nago.

Gaurko ekitaldi honekin iharduera akademikoei bukaera ematera goaz. Bai Tolosan, eta bai Zarautzen badira beste ekitaldi batzuk, baina akademikoak

gaur bukatzen dira. Zarautzen, gaur gaueko hamarretan, Parrokian, Zarauzko Abesbatzaren kontzertua izango da; bihar Xabier Lete, Imanol, Artze eta Antton Valverderen kantaldia, joan den larunbatean Victoria Eugenia antzokian eman zutenaren errepikapena. Aurrerago, uztailean, bi urtetik behin antolatzen den nazioarteko zeramika lehiaketa aurten Lizardiren omenez egingo da, eta azaroan, Eskudero maisuaren “Illeta”.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiet Mendeurren hau antolatzen lagundu diguten guztiei, eta batez ere, funtzionarioen artean Maite Etxanizi, inor gehiegi konturatu gabe egin duen lan guztiagatik, eta baita jardunaldi hauetan parte hartu duten guztiei ere. Eta gaur, bereziki, Euskaltzaindiari, bere hileroko batzarra gaurko egunez hemen egin duelako, Lizardiri buruz. Eta besterik gabe, Haritschelhar jaunari emango diot hitza.

## LIZARDIREN MENDEURRENA

Zarautz, 1996-IV-26

Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua

- Imanol Murua Zarauzko alkate Jauna,
- Agintari Jaun-Andereak,
- Euskaltzainkideak,
- Jaun-Andereak, arratsalde on!

Egun bildua da Euskaltzaindia Zarautzen. Goiz honetan, Udaletxeko areto nagusi honetan, ukan dugu hilabeteroko bilkura. Arratsaldeko ekitaldi hau hasi baino lehen eskertu nahi zaitut alkate jauna, Zarautz hiriarren izenean egin diguzun ongi etorri bero eta anai korrenarengatik. Ez da lehen aldia biltzen dela Euskaltzaindia Zarautzen; beti ukan du hemengo agintarien aldetik harrera on eta amultsua.

Aurten Euskaltzaindiak ohoratu nahi ditu bi idazle ospetsu, bat zarautztarra Lizardi, bertzea tolosarra Aitzol, biak duela ehun urte sortuak, lehena olerkari bikaina, bigarrena eragin handia ukan duena gerla aitzineko euskal literaturan, biak abertzaleak, aberriaren zerbitzari leialak. Holako ospakizunak antolatzen ditu Euskaltzaindiak bere Literatura batzordearen bitartez, oroitaraziz euskaldunei badutela literatura bat bai ahozkoa eta bai idatzitakoa. Menduurrenak baliatzen ditu jardunaldi edo biltzarretan gure idazle zaharren idazkien aztertzeke, hobeki ezagutuak izan dituen.

Adibidez, duela bortz urte, 1991 omenaldi bat eskaini zitzaion Jean-Baptiste Elizanburu saratar olerkariari, irakurtu ziren txostenak *Eusker*a aldizkarian argitaratuak izan zirelarik. Oihenarteren sortzearen laugarren mendea ospatu genuen Maulen eta Donapaleun biltzar nagusi batean, aztertuz gizon hartan, legelaria, historigilea, olerkaria, atso tiz biltzalea. Mintzaldi eta txostenek bildurik *Iker* sortako liburuak 700 orrialdeko azterlan berezia da, sekulan horrelakorik ez baita egin Euskal Herrian.

Orain Euskaltzaindiko Literatura batzordeak eskainiko digu Lizardiri buruz preparatu duen omenaldia. Sei mintzalari dira, denak erakasleak, denak doktoreak. Bakoitzak emanen digu egin dituen ikerketen fruituak, denak kalitate handikoak, baitakit zer lan ederra aurkeztu duten idatzi duten tesietan. Az-

pimarratu nahi nuke holako kideak dauzkala Literatura batzordeak, hasiak dituen lanak segitzen dituela aldi bat bilduz hilabetero.

Bukatu baino lehen eta ukan dezazun, alkate jauna, egun honetako oroitzapen bat eskainiko dizkizut bi oparitxo xume. Lehena, duela 22 urte Valverdekin Lizardiz agertutako liburua ene hitzaurrearekin, bigarrena iaz publikatutakoa *Ponttokeriak* deitzen den liburutxoa. Izan ditela bi liburu horiek ene anaitasunezko oroitzapena.

## LIZARDI: LURRAREN ARNASA

*Zarautzen, 1996ko apirilaren 26an*

*Juan Kruz Igerabide Sarasola*

Egin dezagun bidaia imajinario bat gure mendietako gailur bateraino, adibidez Uzturreraino, adibidez Ernioraino. Handik, gure begirada konpas handi baten besoa bezala luzatzen da eta zirkunferentzia batez mugatzen du lurraldea. Eta giroa garden badago, ortzemuga ere hurbil ikusten dugu, eskura bezala.

Begi-soak mendi gainetik bereganatzen duen lur-irudi hori da Lizardiren lurraldea: lur horren usaina aditzen du, lur horren koloreak barneratzen ditu, lur horren lurruna sentitzen du azalean, lur horren taupada entzuten...

Adi jarriz gero, edozein mendizalek soma dezakeen sentsazio horretatik abiatzen da Lizardiren poetikaren barne-haria, nire ustez. Gainerakoak eder-estalkiak dira: bertso-neurriak, perpausen egiturak, hiztegia, poesia modernistaren moduak eta ideiak... denak eder-estalkiak, baita espazio horren hedapen imajinarioak ere.

Mendi gailurretik eginiko begiradak lurra bildu egiten du bere ingurura, besarkatu bezala egiten du. Eta hori da Lizardiren begi poetikoaren perspektiba nagusia: perspektiba zehatza eta errealista alde batetik, perspektiba afektiboa bestetik, espazioaren eta denboraren osotasuna begirada batean bildu nahi bilitu bezala:

“Berriro igo nauzu ene mendira,  
oroigarri zaarrei maitez begira...”

Gero, noski, perspektiba nagusi horrek ñabardura asko jasoko ditu; batzuetan inpresionismo lausotua erakutsiko digu, nolabait barne-paisaia kanpo paisaiaren gainean muntatuko balitz bezala, ertzak eta lerroak lausotuz. Beste batzuetan, enfoke aldaketak egingo dira, gailurretik urrun ikusten zen hura, hurbil eta eskura jarriz. Enfoke joko horrek zinematografoaren antz handia hartzen du zenbaitetan. Aipagarria da, adibidez, “Bultzi leiotik” poeman, treneko leihatilatik harturiko perspektiba, poemari berari trenaren erritmoa ematen zaio-larik:

“Oi, lur, oi, lur,  
oi, ene lur nerea...”

Lizardik edergarri modernistez janzen ditu bere poemak, eta poesia modernoaren baliabideekin jolas egiten du. Hala ere, begirada nagusia, gailurretiko begirada beti du agintari, beti du sorburu. Aipaturiko poema horretan bertan, “Bultzi leiotik” izenekoan, nahiz eta perspektiben jolasa erakutsi azalean, sakonean ordea goitikako perspektiba-nahiak agintzen du:

“Oi, ene lur,  
baninduzu zerea,  
zu landu, ta zure  
sariz ase...”

Bañan... ezin;  
beeko bear goriak  
narama... Agur  
soro, sagar, mendiak!”

Lurrak agintzen du Lizardigan. Lurraren halako mistika batek. Ez doa sus-trai bila lur-azala harrotzera, lur azpietako haitzuloetan antzinako oihu eta jatorrizko hitzen bila. Ez, galurretiko begirada lantzen du Lizardik, nolabait lurra eta zerua, gizakia eta Jainkoa bildu nahi balitu bezala, paisaiaren trataera soietik haruntzago; begiak lurrera begira, beti lurra bere baitan bildu nahian. Hori da Lizardik lurraren poetika tajutzeko aukeratzen duen era. Lurraren poetikaren ehuna osatzeko begirada-modu asko daude; Lizardik gailurretiko begirada aukeratu du:

“Maite ditut gailurrak  
argiak ez beste...  
Ai, egazia banintz,  
gaiñik-gain nenbilke!”

Lurrak agintzen du, beraz, Lizardigan. Gainerako lau elementuetatik tradizionalak lurraren zerbitzuan daude. Lau elementu horietatik zailena aukeratu zuen Lizardik poesia egiteko. Lurrari atxikiriko poetika erraz eror baitaiteke jokabide politiko baten mirabe, edo arrunkeria herrikoiaeren zerbitzari. Lizardi ere bi jokabide horien itxituran bizi izan zen bere garaian. Baina, gailurrera igotzen zen hura; lurrarekiko lotura ia erlijioso mantentzen zuen; esan daiteke, lurrarekiko begirada estu eta ikuspegi laburrekoari mugak zabalarazi nahi izan zizkiola, bere infinito txikia sortu nahi izan zuela.

Lizardik lurrean dandai jartzen duen ardatz poetiko horri era askotako gainjantziak ikus diezazkiokegu: tradizioaren aldeko jokoerak eta kanpoaldetik hartutako eraginak, ikuspegi ideologikoak, jarrera erlijiosoak, errealtatean gertaturiko gertakizunak, asmatuak... gainjantzi anitz eta aberatsak. Nik gainjantzi horietatik ezkutukoenerari helduko diot, azpiko arropari: ahozko tradizioari, hain zuzen. Erabili al zuen Lizardik ahozko tradizioa? Baldin erabili bazuen, zenbat eta nola? Zein ikuspegirekin?

Lehenengo galderari baietz erantzungo diot; frogak anitz dira. Lizardik etengabe erabili zituen ahozko tradizioko materialak, eta ahozko tradizioko



kantuen lorratzak nonahi aurki ditzakegu: hor daude, adibidez, kopla zaharren oihartzunak. Lizardik kopla zaharra bere horretan jorratu zuen zenbait alditan; adibidez, “Etxeko keea” poema koplaz osaturik dagoela esan dezakegu, alde batetik koplen neurkera tradizionala eskaintzen duelako, eta bestetik, kopla tradizionalan egin ohi den zatiketa (atari sinbolikoa eta irudi fokala) garbi ageri delako gehienetan. Ikus dezagun sail horretako adibide bat:

Aidean, eder usoa  
mendi-mendian pagoa...  
Etxe gaingorriak emana  
keea dun ederragoa.

Kopla horretan, alde batetik “eder-ederrago” hitzaren erabilerak hainbat eta hainbat kopla zaharren oihartzuna dakarkigu. Beste alde batetik, esanahigarria da, lehen bi lerroen ondoren puntu suspentsiboak jartzea; bi zertzelada naturistikoko horiek airean utzi nahi balitu bezala. Horrek garbi erakusten du Lizardi ezaguera osoz ari zela kopla zaharrei ahalik eta zuku lirikorik handiena atera nahian.

Horretaz aparte, kopla tradizionalak duen lehen zati sinboliko horrek aukera handiak eskaintzen ditu zertzelada xumeak eta irudi inpresionistak osatzeko. Lizardiren bertsolerro asko eta asko horien antzekoak dira. Behin baino gehiagotan aipatu izan da Lizardik inpresionismoaren eragina jasan zuela, eta alde horretatik esku-eskura zetozkion kopla zaharretan agertzen ziren irudi liriko horiek.

Maite-kanten arrastoak ere ez dira falta Lizardiren poesian. Maitasunari dagokionez, Lizardik eduki platoniko garbizale samarrak eskaintzen dizkigu, kristau kutsu nabariz; hala ere, maite-kantetan agertzen den iruditeria oso ugari agertzen da Lizardigan, nahiz eta eduki semantikoari gordintasuna kentzen dion. Hor daude maitea sinbolizatzen duten txoriak edo izarño urrunak, hor daude mertxikak, sagarrondoak, enara-kabiak..., baina Lizardik erotismo kutsua kentzu eta kutsu existentzialista ematen dio iruditeria horri guztiari. Hala ere, iruditeria tradizional hori ezagutzen duen irakurleari oihartzun berezia sortzen dio iruditeria horren erabilerak, eduki semantikoak aldatuz egon arren. Lizardiren poesiaren sensualitatea asko indartzen du jokabide horrek, sensualitate karga horren faktore nagusietako bat da iruditeria horren erabilera. Sensualitate hori, hala ere, sublimaturik agertarazten du Lizardik, idealismoz eta kristau jokabide garbizalez.

Maite-kanten oihartzunik argiena “Aldakeri” poemak eskaintzen digu. Hor dago kaiolako txoria, maitasunaren kaiolan harrapaturik dagoen amorantearen sinbolo; hor dago askatasuna edo amodioaren gozamina; hor dago izotza edo maitasunaren frustrazioa. Iruditeria zaharren oinarrian Lizardik istorio berri bat asmatzen du eta kutsu existentzialista ematen dio, azken batean bizitzari buruzko gogoeta bihurtuz.

Lizardik iturri asko nahastu zituen bere poesigintzan. Oro har, esan gezake, gerra aurreko garaiko ikertzaileak egiten ari ziren tradizioaren bilketaz baliatzen dela Lizardi. Tradizioaren bilketa horren beharra eta bere poemetan erabiltzeko asmoa garbi utzi zuen Lizardik:

“Ipui zaarrak, atozte gogora!  
Atozte erregingai begizkoak zora!”

Tradizioa da “asaba zaharren baratza” eta hor bildu nahi du “asaben lorea” (bere hitzetan esanda). Lore horren usaingozoa bere poesigintza osoan erakutsi nahiko du. Nolabait, Lizardiren poemetatik tradizioko generoen eta gaien katalogo ttiki bat atera genezake. Orixek *Euskaldunak* poeman eskaini zigunaren aldean apala da, noski, baina katalogo horren antolamendua ikusten hasten bagara, antz handia hartuko diegu biei. Material beretsuekin ari dira jokoan. Besteak beste, katalogo horretan present daude (lehenago aipatu ditugun koplez eta maite-kantez aparte) eresi zaharrak (Lizardik bere semearen heriotzari eta amonarenari eskainitako poemetan zantzu nabariak ageri dira), haur floklorea (bere formulismo, sehaska-kanta eta abarrez), paremiologia edo errefrauen arloa (“Zozoak beleari... dakiguna”, adibidez), mitologia herrikoaia (lamiak, maitagariak, sorginak), zenbakien balio majiko tradizionala (hirua, zazpia, seriazioak; “bai bainun amona xaar bat, zazpi begiko baratzazai”); hor daude, baita ere, lirika tradizionallean nagusiak diren baliabide estilistikoak: errepikak, paralelismoak, onomatopeiak, eta abar; eta neurkera aldetik ere, lauho txikiaren erabilerak, besteak beste, tradizio herrikoiarekin lotura estuak erakusten ditu (alde hori, J.M. Lekuonak aztertua du *Jakin* 29an, 53-87orr.).

Lehenengo galderari erantzunez, ikusi dugu, beraz, erabili zuela Lizardik tradizio herrikoaia, eta ugari gainera. Bigarren galderan zenbat eta nola galde-tzen genuen; ikusi dugu, ugari erabili zuela. Nola? Bada, baliabide eta eduki herriko horiek guztiak baliabide modernistekin nahasturik erabili zituen. Azpiko arropaz mintzatu gara; baliabide modernistak gaineko arropak dira, nabariarik ageri direnak. Ordu arteko poesigintzan ez zeukan eredurik gaineko jantzi hori osatzeko, eta Lizardik asmatu egin zuen bere garaiko kideekin batera; hizkuntza behartu, eta edukia ilundurik gelditu zen. Poesia zaila, abstrakzio handikoa egin zuen.

Hirugarren galderari ere labur erantzungo diogu. Zein ikuspegiz erabili zuen Lizardik tradizio herrikoaia? Ikuspegi idealista batez, erantzungo genuke. Herri tradizioan bilatu zituen sustraiak, material zaharrak, eta material horiek goi mailako poesiaren zerbitzuan jarri zituen; konkretzio handiko materialak izan ohi dira material herrikoia; bada, Lizardik, abstrakzio handiko poesia egiteko erabili zituen. Materialei, beraz, eraldaketa handia egin zien, idealismoaren eraginpean aritu izan ziren tradizio luze bateko poeta anitzek bezala. Azken batean, European aspaldidanik praktikatzen zen jokabide poetiko oso emankor bat etxeratzea besterik ez zuen egin Lizardik.

Hori guztia, ordea, teknologia literario baten adierazpena besterik ez da. Baina, Lizardiren poesian teknologia literarioa baino zerbait gehiago aurkitzen dugu: lurraren poetikan oinarrituriko poesiaren bibentzia sakona. Jantzi zahar-  
rrak eta jantzi modernoak, oso apain jarrita ere ez gintuzkete hunkituko; eta Lizardik hunkitu egiten gaitu.



## LIZARDI ETA PAISAIAREN TRATAERA

Zarautz, 1996-IV-26

Luis Mari Mujika

Lizardi olerkaria aipatzean edozein euskalduni euskal paisajearen ebokazio joria datorkio. Lizardi, olerkari gaitz eta kontzeptistak, eskaini zigun paisaia trinkoa eta sugerentea izan zen, margoz betea, estetika etorrerazak alboratu zituen.

Lizardiren laburdura-joerek edertasuna —paisaiaren trataeran ere— era aski hertsiaz ulertzea ekarri zuen. Lizardik ederrera eginiko jauzi kaulitatiboak zerikusi zuzena zuen paisaiaren begiztapen sakon eta astitsuarekin. Bere paisajismoa inpresionista da, baina ez da osoro nagia edo gelbera. Euskal Herrian inpresionistek isladatu ziguten paisaia (hala-nola, Regoyosek, Amarikak, bes-teen artean) askotan lainotsua, eulbera, ez-prezisoa izan zen. Lizardik onduriko paisaia hurbiletik dohakie, baina ez haiek bezainbat trazo xumez sugerentzia formaletan galdua. Esanen nuke Regoyosen “Camino de Fuenterrabía” edo eta Amarikaren “Sauces del Zadorra” koadroek inpresionismoa Lizardik baino informaltasun etereoagoaz ulertu zutela. Hala ere, Lizardiren paisaia ere funtsean olde inpresionistetan sartzen dela uste dugu, nahiz eta bere estetika modernismoak Espainiara ekarririko iruditeria klasizistaz ere baliatu, eta alde horretatik bere ederdura paisajistikoak puntu klasizista nabarragoak ditu, batez ere, *Urtegiroak ene begietan* poemako *Baso Itzal* atalean. Lizardi poeta modernoa dugu, baina modernotasun orekatukoa oraindik, bere iruditeria ez bide baitu ukitu, adibidez, garaiko 27 belaunaldiko poeten surrealismoak eta irrazionalismo metaforiko guztizkoak. Lizardirengan oraindik —paisaia deskribatzean— nahiko berme objektuaren aztarrenak, nahiz intimismo ongi landu edo disziplinatatu baten barnean.

Ez da hemen gure asmoa bere kanpo-eraginez ihardutea. Hala ere, ondo legoke ildo posible batzuk gogoratzea Lizardiren iruditeria nabar eta klasizisantea hobeto kokatzeko. Autore askoek aipatu dute frantziar sinbolisten eragina berarengan, bereziki, Rimbaud eta Verlaine batena. Ezin da ahantzi frantziar sinbolismoaren jarraipen eta adierazpen izan zela Espainian modernismoa, eta Lizardiren iruditeria hurbilagotik ikusita, motibo mitologikoak, irudi ninfatikoak, amodioaren aipu nupzialak, jauregiak eta tenploak (eta euren zutoin eta habeak), jainkosak, geziak, Bako, Ikaro, eta abar ez direla falta. Ezin dugu ahantzi gaztelaniaren esparruan Rubén Darío poetaren iruditeria modernista

—tratamendu mitologikoaren aldetik oso oparoa—; elementu batzuk oroitaraztekotan aipatzekoak bere aintzira itzaltsuak, zisnez beteriko urmaelak, printzesak, mundu helenikoko jainko eta jainkosen aipuak. Hori dena present lehenago Frantziako parnasiar eta sinbolisten iruditeria neoklasikoan, eta antzeko irudiak gure olerkariarengan, poemaren sonoritatea ahantzi gabe. Besteen artean aipagarri hurrengo pasarteak: "... Irusta-sailak/eskuan ditutela ardotxanbillak («ánforas de vino» itzultzen du poetak) zutoinez eta osto -piloiz beatea...", "Atsedena eliz, zutoiz bete/ostopillo ta izar izunak abe:/ta bertan oiareko yaupaleme" (arkitektura poetiko hau, dudarik gabe, klasikoa da, poeta simbolista eta modernistetan ere ematen zena), "Gallurrera igoa degu Iguzkia,/nondik yaurtiko zutago gezia...", "Dantzari talde, Baco-tiarrak,/naaspil zoroen zuti-baldarrak,/esku goituan ontzia ardo...", "... Iguzki-k ezin urtzuko egoz/(Ikar-ek ez bezelako)", eta abar... Noski, elementu autoktonoak ere ez dira falta, *Basoa*, *Basajuan*, *Maitagarriak* bezala. Beste ildo probablea trenaren erabilpenean bai Juan Ramón Jiménez eta bai A. Machado poetarena, zeinetan poesiak Espainian geroago jasango duen irrazionalismoa oraindik hain bortitza ez dela. Lizardiren paisaiaren pean, bada, oso posible simbolismoa, espainiar modernismoa eta XX mende hasierako beste poeta batzuen eragina, Mistral edo Kataluniako berpizkunde literarioarena ahantzi gabe. 27gn. belaunaldiarena, aldiz, ez da probablea; Lizardiren estetika oraindik aski objetibala da, eta metafora surrealista irrazionalaren presentzia urria da berarengan 98.ko belaunaldiko autore batzuetan paisajismoa ere kontsideragarria da, nahiz gure olerkariak ez lortu beti estilo "ez-prezisoaren" teknika diluitua (hots, sentimendu zehatza ez-zehazki —vágamente— ematea, paisaian zehatz direnak urrunean ezartzea, edo eta objektu ezpreziso bat zehazki deskribatzea, sentimendu iluntsuak itzurtzea, sinestesiak eta bisemiak erruz erabiltzea, nahiz eta bisemia ez falta, noski, gure olerkariarengan); bestalde, hizkera mailan olerkariak harturiko jarrera bihurtzaile eta hertsatuak tipologia aski pertsonala ezarri zion paisaiaren trataerari. Lizardiren mintzo poetikoa —paisajismoaren arloan ere— ez da hain bat-batekoa eta ulerterreza; bere joera kontzeptistaz erabili zuen eredu linguistiko hertsatuegia gertatzen zen, maiz paisaiaren alde natural, diluituak irakurlearen aldetik intuizio xumez ulerzeko.

## PAISAIA EDERDURAREN GILTZA

Euskal poesian kanta zaharreko "argi izarrak urten dau zeruan goian ostantzean", edo eta "Beotibarko zelaiak len illunak, gaur alaiak", delakoak deskribapen paisajistiko formal baten ikuspegian sartzen dira, tragedia eta egitate datuala ikuspegi animiko batetik tratatuz. Hurbilago, Orixerengan konstata daitekeen paisaia askoz zehatz eta fisikoagoa da, ia oihartzun animikorik gabea; Lizardirena, aldiz, intentzionalitate animiko nagusiz beterik azaltzen da. XIX mendeko olerkari eta bertsolarien aipamen paisajistikoak topikoz beteta aurki daitezke, maiz, argiaren (eguzkiaren, ilargiaren...) aipuetara mugatuta; detailis-

mo hutsera —nahiz nabarrera— lerratzen dira, kanpotiko gauzak deskribatzera (soroa, baserria, oihana, mendia, adibidez...). Lizardik, aldiz, transposizio bat egitea lortzen du behatuari olde animikoa erantsiz.

Gure olerkariaren paisaia ez da zerbait fisikoren ezagugarri, arimaren azal-bide baino. Egia da, goian esan dugunez, Lizardiren paisaia aski datuala dela (adibidez, Urkizupeko ingurune zehatza deskribatzean), baina bere mintzo poetikoak aitzineko datueltasun objetibaletik olde animikoetara ihes egitea lortzen du. Hori dela eta, gure olerkariaren zati askok ukitu bisemikoa eskuratzen du, hots, paisaian atzemaniko elementuen ostean sentimendu berriak sugeritzea, adibidez, frustrazioa, bakardadea, tristura, herioaren presentzia eta abar... Neguaren atarian “Egur ezearen kea/goiak du kolore:/egunaren atariruntz/zauri bat, gordiña/odol bearrean urre” dioenean pasarte paisajistikoa ez da mugatzen deskribapen fisiko hutsera (goiza, lainoa, eguzki argiaren errainua *zauri* gisa kontsideratzera), baizik eta *zauri gordiñaren* neguaren ondorengo esperantza batez ari zaigu poeta, lainoa eta argiaren kontraesanean biziak naturaren heriotza gaindituko duenaren agintzaz. Irudi fisikoen bitartez beste egitate animikoak sugeritzen dizkigu.

## “ARTE POR EL ARTE” DELAKOA GUREAN

Lizardiren poetikan paisaia izan daiteke, agian, nagusia olerkariaren lehia preziosista argitan uzten. Lizardi ohardun da gure hizkuntzaren baitan ere derrigorrezkoa dela ahalegin bertuosista edo eta “arte por el arte” delakoa, euskara XIX mende amaiera eta XX mendeko estetika berrian hobeto ahokatzeko. Gure esparruan helburu estetiko hori nabarmen gertatu zen 30.ko olerkariaren belaunaldian, eta, bereziki, Lauaxeta eta Lizardiren kasuan. Horrela euskal literatuaren ezaugarri utilitaristak (edo eta pastoralak) —hainbeste eliz-libururen produzioan nabari— Lizardiren lehia poetikoan, zehazki, zerbait desinteresatu edo dotoreziaren gibeletik zihoan saio bezala azaldu zen, hizkeraren lanketa estetikoa bilatuz. Aldaketa horrek sekulako garrantzia edukiko zuen gerora. Horrela gainditu zuten olerkariek euskal letretako produzio anitzen utilitarismo petoa —beste aldetik beharrezkoa, ezen eta eliz-liburuak herri elebakar baten behar espiritualak betetzera etorri ziren—. Lizardiren ibilbidea, bada, estetika ohardun baten ildo gertatu zen, eginkizun ez-interesatu baten proposamen formal.

## ILDO ESTETIKOAK

Goikoa kontutan izanda, Lizardiren paisajismoa aportazio ez-ohikoetara bideratuko da. Lizardi XX mendeko idazlea dugu, eta berak bazekien erromantizismoaz geroztik, ez daitekeela paisaiaren trataera klasizismoan bezala

egin, hots, sentimena arrazoiaren mende zegoen estetikan bezala; kanpoan ikusia —sinbolismo frantziarrak eta gero modernismoak Espainian eginen zue-  
nez— sentimenduaren olde irrazionaletan bildu behar zen, elementu fisikoak  
barne egoeretan egosi behar ziren, iruditeria harrotu behar zen beti olde ani-  
mikoa bilatuz. Gorago Euskal Herriko pintore inpresionista batzuk aipatu di-  
tugu, eta aldi berean 98.ko belaunaldiko idazle batzuen jarrera paisajistikoa go-  
gora ekarri. Mende honen hasieran ezin daiteke ahantz Azorin bat Gaztela eta  
Levanteko paisaiaren kasuan. Hurbilago oraindik Unamuno euskalduna, oso  
laket baitzituen aldarte existentzialak paisaian atzematea (batez ere Gaztela-  
koan, baina baita ere Euskal Herrikoan), bere bidaietako liburuak horren lekuko  
direla. A. Machadoren kasua ere adierazgarri da alde horretatik. Autore guzti  
horientzat paisaia ez da elementu fisiko datual hutsa, baita ere aldarte animi-  
koen kokagunea. Paisaiarekin transposizio bat egiten dute, arima eranzten, pai-  
saiaren zertzeladen bitartez *ni*-aren asperra, isolamendua, frustrazioa, ezina, an-  
tsia edo eta beste edozein sentimendu aisladatzen. Beraz, edozein gizonak bere  
baitan sentitzen duen iragankortasuna, hilezkortasun-egarria edo eta tristezia  
paisaiaren zertzeladetan ispulutua ikusten dute, kanpoan atxekia barnekoaren  
islada bailitza. Horregatik Machadoren deskribapen paisajistikoen ikutu bi-  
semiko handia. Adibidez, Machadok “Las ascuas de un crepúsculo mora-  
do/detrás del negro cipresal humean...” dioenean ilunabar zehatz baten kons-  
tatapenetik harantz beste sentsazioak —hots, bigarren adierak (giza  
kondizioaren erormena, ihesia, itzali-beharra...)— sugeritzen ditu. Bestainbete,  
“... en la marmórea taza/reposa el agua muerta” eranstea, “reposa” eta “muer-  
ta” zama bisemikoz hornituta azaltzen zaizkigula. Poetak “ascua”, “crepúscu-  
lo”, “cipresal” delakoen bitartez ilunabarrak bereak dituen gainbeherazko sents-  
sazioak sugeritzen dizkigu (hau da, heriotza, itzalpena, bizitzaren amaiera eta  
koerlatibo diren tristura eta etsipenezko sentimenduak). Hori guztia, maiz, XX  
mendeko estetikan garaiago eginen da iruditeria korrante irrazionaletan sartzen  
etorriko den heinean.

Lizardiren kasuan ere paisaiako elementu bisemikoak ez dira albora uz-  
tekoak, nahiz eta bere iruditeria, gure ustetan, ez izan goian aipaturikoetan be-  
zain irrazionala. Lizardiren “Bizia lo” poemako pasarte batzuk aski bisemikoak  
dira. Bertan neguko otalorea “karraxika” azaltzen da, haritzak “luze-luze egi-  
ñik” daude, oihu eta luzadura fisikoa oihartzun animiko baten oldetan ahoka-  
tuz. Neguaren azalpen fisikoak “bigarren” zerbait sugeritzen digu aipatu ahal.  
Testuak dio: “Bide-ertzean, ez marrubi,/ez belar gizenik,/otalorea bakan-  
ka,/goitzo karraxika,/udaberriari deika”. Zatia irakurrita, berehala sortzen da  
guregan nahigabe ezdefinitu baten sentsazioa; bertako *karraxiak* ez dira oihu  
fisiko hutsak. Bestalde, neguaren bakardadean landare bat loretan topatzea kon-  
traesan baten adierazpen da, hots, naturaren negu-heriotzaren ondoan esperan-  
tza badela, neguak jarraian udaberria izanen duela —otearen lore horia aurre-  
iragarpen izaki—.



“Neskatx urdin-yantzia” poeman ere neguaren deskribapen fisikoak tindu bisemikoetan bilduta. “Billuzik zan basoa/negu-ondarrean, neskatx urdin-yantzia/bertara danean”. Aurkezten zaigun negua ez da negu fisiko hutsa negu animikoa “billuts” epitetoaz neskatxa baten femineitatearekin ahokatzen duelako, eta, orobat, neska baten gaztetasuna eta neguaren eranzketa alboan ezartzen existentziaren kontrastea sugerituz (hots, negua eta udaberriaren, heriotza eta bizitzaren binomioa). Beraz, Lizardiren kanpo deskribapenei irakurleak beste sema erants diezaieke olerkariak probokaturiko ildoetatik. Inguruko natura transkribatzean poeta paisaiaren gogaide bihurtzen da, esteriorismo petoa gainditzen du, epiteto egokien bitartez natura mintzodun azaltzen digu. Machadok “*reposa el agua muerta*” idaztean bezala, Lizardik haizea *setati* edo *burugogor* gisa aurkezten digu, fenomeno fisiko bati epiteto moral bat egotziz (“*Aizea dabil, busti setatia, lurrari daragio ots negartia*”). *Setatia* epitetoa zama emozional berriaz hornitua eskaintzen zaigu paisaia fisikoari berezkoa ez dagokion kalitate moral bat atxiki diolako. Testua irakurritz irakurlearengan erreakzio emozional berria sortzen da.

Ez dugu uste paisaiaren aitzinean lorpen bisemikoak eskuratzeko derri-gorrezkoa denik poeta modernoa izatea. Bisemia ernazimenduko poetetan ere ageri zen, baina, dudarik ez, estetika zenbat eta irrazionalagoa egin, ahalbide bisemiko onduagoz nagusitzen etorri dela, mundu fisikoa eta sugerituaren arteko mugak poesia berrian eteroagoak egin direlako.

Goikoa kontutan izanik, baieztatu dezakegu Lizardiren langintza poetikoan paisajismoa dela alderdi garatuenetakoa. Eta begitzapena urtegiroei loturiko eskenategian garaia da. “Bizia lo”, “Baso itzal”, “Ondar gorri” gisako poemak —“Bultzi-leiotik” delakoa ahanzi gabe— dira paisajismo horren alde punta-koenak. Trataera poetikoa, bestalde, gogoetatsuagoa egiten da paisaia-pasartetan olerkariarentzat izadia, “zerbait” ordez, “norbait” delako. Lizardik berak “Hitz-lauz” deituriko liburukian mendira igortzean naturarekin ukaniko topaketa bortitza desestaltzen digu, prosopopeiazko jarrerak gailenduz. “Mendiak —adiskide otxana baita ori beti— aspaldian neronen erruz elkar-ikusigabeak giñan-arren berebiziko begitarte ona egin zidan... Dana dala, adiskide onak eskeñi-ikusizunez irudimena asi zitzaidan bazter guztietatik izeki eta suak arzten. Goia, mendi-gallurrak, bideko zernaitxoak, basoa, elur-ondarrak: laburki, begiragarri oro, nortu ta ereski olertsuez mamitu zitzaizkidan. Sorgingarritzko sortze ta mamitze orren indarrez, Goiak bazirudidan Egunak urrezko azkonez zauritutako *norbait*... Basoa, ez aritzez zirudidan osatua, baizik... *norbaitzuez*...”.

Lizardik paisajearen aitzinean, bada, jarrera kosista ordez, guztiz personalista hartzen du, naturak hitz egiten dio, harreman subjettiboa eskaintzen dio; “Irudi-miñez nengoen izorra” zioen. Dudarik gabe, olerkariarentzat natura pertsona bat zen —ez objektu bat—, izadiarekiko harremanak pertsonalismo batean kokatzen zituen. Horregatik, maiz, *basoa*, *itzala*, *fagoa*, *uda* gisako hitzak

maiuskulaz idazten ditu, eta hurbiltasun pertsonala adierazi guraz ere hikazko mintzoan ezartzen.

Prosopopeiazko pasarteak ugariak dira. Hona testu esanguratsu batzuk:

*Itzal! Baso-ren ume yaikal,  
xalogorik ezin aal:  
beltxeran, begi bai azal.  
Maitagarriak dituk  
ire basoan.  
Begira non dudan aterpean zai  
gorputza sotilla, betartea arrai.  
Gero aldamenean  
atazaidan eseri, andereño, otxan,  
ta, ai, zein gozo gauden aopekotan.*

Esklamaketak ere tenore pertsonalista berean sartuta:

*Bekik iretzat oiu alai au:  
sagasti iretzat; bereziki baiau  
yatiez yantzi zorna berriak.  
Arizti, urrunago elurtea.  
Uda! mendiak i au eguerdi.*

Errepikaren teknikak ere badu zerikusia izadiarekiko jarrera pertsonalista horretan, sentimenduek nagusitzeko bide bezala (“*Oi, lur, oi, lur/oi, ene lur nereal/Oi, goiz eme,/parre gozoz ernea*”).

Naturak, berez, objetibotasun hitsa baldin badu ere, olerkariaren bitartez izadia elkarrekiko moldaeraz janzen da, poetaren kontzientzia estetikoaz materia izpirituz hornitzen da, elementu fisikoak animiko bihurtzen, dira, “zerbait” delakoa “norbait” bilakatzen. Bereziki, urtearoak —negua, udaberria, uda, udagoena— jarrera pertsonalista eta kontzientzia estetiko horretan kokatuta daude. Lizardiren “erdibeharra” paisaian existentzia, heriotza, iragangaiztasuna, iraunahia gisako sentimenduen ispilu da. Urtegiroak *itun* eta *setati* gisako adjetibazio animikoez hornituta daude, maiz. (“Negua, zertan ago, gogo miñak puztua,/zer dela-ta itun, txoria?”, —“Billuzik zan basoa/negu-ondarrean”, —“Aritzak eundaka,/air zaizkio goiari,/argi-lehenenkia egarri baitute,/arako urrezko zauria/izanik iturri”). Udazkenaren kontenplazioa, zehazki, nabarragoa da, udagoenaren transposizio animikoaren azpian heriotza baitago, eta heriotza horrek —Lizardi fededunarengan— bere azken emaitza Jainkoarengan du. “Ondar Gorri”ko pasarteak dira, gure ustez, Lizardiren gune estetiko eta formal trinkoenetakoak. Heriotza —paisaian umotuta— teologia eskatologiko baten gailurrean osatzen du. Bertan dena sentsazio sakon eta pintura da, paisaiak eskainitako elementuak daudelako. *Itsasoa/lehorra, odola/eguzki-errainua* —funtsean— bizia eta heriotzaren irudikazio paisajistiko dira, olerkariaren baitan ehotuak.

Udazkena aipatzean ezin utzi albora pinturaren aldetik sugerenteenetakoak gertatzen diren “urre gorizko” eta “odol-uts” delakoak. Paisajismoaren aldetik ezin hobe kondentsatzen du Lizardik behaketa kromatikoak: “Itsasoak bai-baitu, urrun ertzean,/urre/gorizko bide-goenean,/legor bat —odol-uts iñularrean—,/Eguzki nondik sar atsedenean”.

Aitzolek berak olerkariaren transposizio-oldeak nabarmendu nahi izan zituen paisaiaren trataera ukitzean: “Lizardi ama el paisaje, idolatra a la Naturaleza. A ésta y a aquél intuye en una mirada intensiva extraordinaria. Y, una vez así captados por su potencia visual, los transforma su fantasía, con tan mágica virtud, que los restituye a la vida del arte con un impresionante colorido, movimiento y viveza. Cuanto más y mejor se intuya, más y mejor artista se es. Y Lizardi era un hombre que percibía y captaba a la naturaleza y al paisaje con dinamismo certero. He aquí por qué su obra maestra ha resultado la descripción de las estaciones del año”.

Lizardik ez du begiztatu izadia datu soil gisa, barne-gelatan egosi baino, interiorizaziozko prozesu batez. Pintura orori berezkoa zaion kanpotikotasuna barneratzen du, interiorizatzen du, estetikak ez duelako sakontasunik barne goeta bihurtuta baino. Nahiz eta Lizardiren poetika aski kontzeptista izan, olerkariari ez zaio falta lirika sakon guztiak berea duen barnekoitasun freskoa. Horrek ez du ukatzen, noski, zehaztapenaren aldetik puntilismoa egitea ere laketa zuela batzuetan, adibidez, *Torre Zarra* deskribatzean “baratzaren muga/torre bat, serail,/oro beltz, zillarrez,/ertzak zurikail” dioenean (hiru kolore aipatuz pasarte hain murriztean).

## KROMATISMOAREN TRATAERA

Lizardiren paisajismoa sakontzean ezinbestekoa gertatzen da bere makturera kromatikoa kontuan hartzea. Goran esan dugunez, olerkariak hitzekin pintura egiten digu XX mende hasierako edozein inpresionistak bezain ongi. Guk gure *Lizardiren lirika-bideak* liburuan hau esaten genuen: “Koloreen arloa da Lizardiren estetikari gihardurarik nabarmenetakoa duena, bere paisajismoaren inpresionismo apalarekin ongi lotua doana. Lizardik, dudarik gabe, *kromatismoa* maite du, eta alderdi hori ere oso estimagarria da euskal literaturaren esparruan, euskaldunak ia inoiz koloretaz (euskara idatzian) ez baitu exageratu...”.

Lizardiren kromatismoak, gainera, olde originalak baditu, hots, ohiko topikoetatik alde egiten duen zerbait. Originaltasun horren alde bat nabartasuna daiteke, ezen kromatismo intentsoa egiten ere badaki. “Ondar gorri” poemako ahapaldi berean, adibidez, sei ñabardura kromatiko pilatzen dizkigu, hots, *orlegi, nabar, gorri, burni, erdoitua, odola* delakoak. Hona testua:

*Arru-beera itzuli nago. Ixurkia  
basoz eta garoz yantzia:  
noizbait orlegi, gaur nabar basoa;  
tarteka gorri garoa.  
Beste gain erpin bat bazan agiri  
leen eze: gaur burni-meatz iduri,  
Lurraren azala erdoitua da,  
ala dut odola begietara?*

Zinez, oso aberatsa ahapaldi hau pinturaren aldetik; benetako koadroa dirudi sei elementu kromatiko horiekin, eta bertan gure literaturaren historiako irudi lortuenetako bat kanpotiko paisaiak eskaintzen dion margoa begietako odolarekin nahasiz, hau da, transposizio kromatiko somatizazio baten bitartez eginez (“... ala dut odola begietara?”).

Kromatismo sugerente bera neguaren atarian *urrea* —kolore gisa— eta *odol-zauria* kontraezarriz, eta azken hau intentsitate kromatikoaren adierazletzat hartuz.

*Egur ezearen kea  
goiak du kolore:  
egunaren atariruntz  
zauri bat, gordiña,  
odol beharrean urre.*

Testu honetan elementu kromatikoak *kea*, *kolore zuria*, *odola* eta *urre* dira. Bertan *odola* bortiztasun kromatikoaren irudi gisa (eta irudi somatiko ere bada) *urreari* kontrajarrita, *urrea* margoz *odola* baino apalagoa izaki gorriaren ñabarduretan. Ahapaldi osoa erraz erka daiteke Regoyos pintore inpresionistaren edozein koadroarekin, irakurleak halako emozio etereo jasotzen duela.

*Odolaren* trataera kromatikoarekin batera aberastasun bera *garoa* edo *iratzearen* kasuan, bera baita udazkeneko euskal paisaiako elementu piktoriko berezietakoa. *Garoa* basoaren ondoan kolorez jantzia azaltzen da, eta berarekin materializazioa ere gertatzen da, garoz jantziriko paisaia “burni-meatz iduri” baita.

Udaberrira igarotzen bagara, kolore-ñabardura berak han-hemen:

*Sagasti gazte, sagasti zuri,  
inguma-atsegintokia iduri,  
elurte arian geldia!...*

*Txuriaz naasi, pipil gurien,  
ler-gabe-lore zabal-zorien  
gorrixka, nabari duk sarri,  
odol tantoak antzo...*

*Neskatxa da, ta urdiñez  
yantzita ziyoan.  
Urdiña yazkia, ta  
begia areago...*

Kromatismoaren sareak Lizardirengan oso aberatsak dira. Gure “Lizardiren lirika-bideak” liburuan kromatismoa aztertzean *hamasei* kasu berezi atzeman genituen. Aipagarri, gehienbat, hurrengoak:

- a) Kolorea deskribapen somatiko gisa:  
*Azal orizta, ao gorri.*
- b) Kolorea paisaiaren lagungarri huts gisa:  
*Suzko itxaso, urrezko itxaso.*
- c) Margoa transposizioz, bere kokagune normaletik aterata:  
*Amaika izar urdiñen  
dirdirak yosia.*

Izarrak, normalean ez dira *urdiñak*, horiztak edo urre-kolorekoak baino; *urdina*, berez, ortzearen kolorea da.

- d) Kolorea arlo begetaetik hartuta:  
*Mendietako isla zeru-bazterrean  
non gerezi eta non baxaran denean.*
- e) Kolorea arlo somatikoaren erreferentzietatik:  
*Legor bat... —odol-uts iñularrean.  
Zauri bat gordiña...  
Odol bearrean urre.*
- f) Kolorea metalezko elementuetatik:  
*Urrezko itsaso...  
Urre urtuzko yasak...  
Leen eze; gaur burni-meatz iduri...*
- g) Kolorea epiteto aunitzetan bilduta:  
*Ler-gabe-lore zabal-zorien  
gorrixka, nabari duk sarri.*
- h) Kolorea bisemiazko egoeretan kokatuta:  
*Aritzak eundaka  
air zazkio goiari,  
arako zurezko zauria  
izanik iturri...*

*Bide-ertzean, ez marrubi  
ez belar gizenik.  
Otalorea bakanka,*

*goiztxo karraxika,  
udaberriari deika...*

## PAISAJISMOAREN ONDORIOAK

Lizardiren paisajismoaren alderdi nabarrak aztertuta esan daiteke gure hizkuntzak gerra aurretiko poesigintzan bide ñabar eta sugerentea egin zuela. Lizardiren trataera paisajistiko apartaren zergaitien artean bere jarrera barnekoa eta sakona. Ezin dugu ahantzi Azorinek zioena, alegia, “el paisaje soy yo”. Lizardik ere interiorizatu egiten du paisaia; heriotzaren presentzia, Jainko-gosea, aldiaren iragantasuna, adibidez, etengabea da bere paisaiaren zertzeladatan. Ezin da ekidin, batez ere, bere beera-behar existentziala “Oi, zein dan ituna/beera-bear au!/Nik ez nai eguna/biurtzerik gau!” dioenean. Eguna eta gauaren esperientzia —existentziaren sentimenduak oro— paisaiarekin loturik eman dizkigu poetak.

Tratamendu horren islada orindik gihartsuagoa udazkenaren sintesia oihartzun eskatologikoz eskaintzen digunean: “Ta udazken-atsarreko goiz batean/esnatu nadi Yainkozko Betean”. “Yainkozko Bete” hori udazkeneko paisaia ahokaturiko eskari teologikoa da, baina udazkeneko oskorri kromatiko baten esperientziatik ateratako desira ere.

*Heriotza bezala, bizi-esperientzia eta porrota* (“Oi, zein dan ituna/beera-bear au”), *hutsune-sentsazioa* (“... lore-ontzi naro,/zergatik gaur hain uts?, “Ostobakandu-sasian/kabi bat uts, urratua...”, “Leen uts sakonean Bakar nindukana”), *maitasuna, samina, alditasuna* (bereziki trenaren trataeran), *esperantza* eta beste sentimendu asko paisaiaren biloetan biltzen ditu, existentziaren koordinada guztiak margoz eta ukitu xumez jota utziz.

Honelakoa dugu aurren bere jaiotzaren mendeurrena ospatzen dugun Lizardi garaia. Bere nortasun poetikoak gure estima eta dastamena eskatzen du, gure poeta ederraren zale porrokatua zelarik gure aldetik jarrera esanguratsuen berriro bere poetika irakurtzea litzateke; Lizardik —urteak pasatu arren— irangaitz den zerbait utzi digu, hots, bere esperientzia estetikoa, gure hizkuntzaren harrobitik eginiko ildo eder etengabea.

# BULTZI-LEIOTIK ESPAZIO-DENBORAREN KORROPILOETAN

*Zarautz, 1996-IV-26*

*Aurelia Arkotxa*

## I. ESPAZIOAK

### 1. Barna

Bultzi-leiotik tituluak berak erakusten du nondik nora doan poetaren begirada: barnetik, bultziaren barnetik kanpora. Bultzia mekanika hotza, arrotza da, “zoro”-a, indar itsuak daramana, batek berak kontrola ez dezakeena... Poeta, edo bederen, mintzatuko zaigun “ni”-ak, kartzelatua sendi du bere burua:

doa zoro  
ta (bertan ni) bultzia... (V)

Parentesiek erakusten duten hestutze hori, jabalduko da lehiolari esker, lehiorearen garrantzia tituluan da agertzen lehenik, lehiorik gabe ez bailiteke poemarik, lehiore konkretu, lehiore sinboliko? hemen, dena den, bultziaren lehiore presondegikoaren parekoa da, kartzelatua denaren desiraren pasabide eta islatze ere.

Ahatik, ez dauka lehioreak beti itxura bera:

a) Tituluan lehiorearen bazterra, markoa, ongi definitua dago, kanpoa barnetik ikusten da, bultziaren “leiotik”. Lehiore idekia dago

b) Poemaren hastapenean, berriz, lehiore ezeztatzen da, kanpoa da orai barnean sartzen, lehendabiziko lau bertsutan ahantzenezake ere bultzian gaudela:

oro laino  
mee batek estalia,  
urrez oro  
eguzkiak yantzia...

c) Azken hiru bertsuetan lehioa hestera doa, trenaren mugimendua azkartzen delakotz, sorlekua zoraduran urruntzen; zazpigarrenean lehioak bere ohidurazko itxura geometrikoa hartu du baina idekia izateko orde hetsia da:

Bainan... ezin  
beeko bear goriak  
narama... Agur  
soro, sagar, mendiak!... (VII)

Ohartzen ahal gara lehioaren geometria aldakorrak baduela poemaren espazioarekin zer ikus: mendi kasko eta baserri bakartietan hasten da poema eta hor lehio/begia lurraren edertasunaz zorutzen da, bainan bultzia beheitera heldu baino lehen, poetak lurra agurtzen du, lehio/begia hesten hasten da eta poema ere, “beeko” munduak ez baitauka hemen lekurik.

\* \* \*

Sorlekuan egote nahi eta sorlektik joateko beharraren artean den diko-  
tomiatik dator ezinaren sendimendua (“bainan... ezin:”), hauturik ez baitago,  
poeta zoriaren, fortunaren jostagailua baizik ez baita:

Bainan... ezin  
beeko bear goriak  
narama... (...) (VII)

*Zori- gaitza*, sekulan deusek geldiarazten ahal ez duen bultziaren itxura-  
koa.

Orduan, trenean egotea ezezkoa da osoki, are gehiago egote hori lurraren  
kurutzatze eta uztearekin bat doalarik.

Ohar gaitezen, azkenean, mugimenduak direla oinarrizko edo, hobekiago  
erranez, mugimenduen indar ezberdin eta etsaiak. Hortik desorekaren sendi-  
mendua:

— Lurraren gelditasun eta trenaren lastertasunaren artean:

Zure bazter,  
gurazko aberria,  
doa zoro  
ta (bertan ni) bultzia... (V)

— “Ni”-aren baitan: kanpoan egon nahi bailuke bainan trenean segitu be-  
har baitu (“bertan ni”):

Oi, ene lur,  
baninduzu zerea,  
zu landu, ta zure



sariz aseaa!... (VI)

Bainan... ezin  
(...) (VII)

— Trena goititik beheiti doa, eremu ezagutu (= maitatua) eremu ezezagutuari (= gaitzestua) buruz. Poema, ikusi dugun bezala, “gurazko aberria”-ren eremu ezagutuaren espazioan gelditzen da:

## 2. Kanpoa

Kanpoan dago desiratzen den “gurazko aberria”, poetaren oroimenarekin lotua den lurra, arbasoena... Lehen argiaren dardaretan agertzen zaigu Claude Monet-en pintzela gogoaraziz:

oro laino  
mee batek estalia,  
urrez oro  
eguzkiak yantzia... (III)

Hastapenetik, trenaren neurkadarekin batera, poetaren mirestea, adorazio-nea («Oi, lur, oi, lur!»), bainan ere, atxikimendu izigarriaren gibelean, mina hor jadanik («Oi, ene lur nerea!...»).

Argiak eta “laino mee batek” zizeldu bazterrak goiz emankorrarekin agertzen eta sortzen dira:

oi, goiz eme,  
parre gozoz emea!... (I)

Goiz emea ez ote da lurraren emetasunarekin identifikatzen? *Lehiotik kanpo den mundu osoa emea da*, preseski trenaren aurka: mekanikak arraren zentzu ezezkoa dager, jadanik ikusi dugun bezala, bortitzkeria, indar itsua errepresentatzen ditu bainan ere bortxaketa, lurretan barna (barnean) sartzen baita, eta ez baita biziturri.

Lurraren emetasun miresgarria paisaiak dauzkan koloreek (musker, gorri) eta lekuko landare (arto) eta zuhaitz emankorren fruituetan (sagar) ikusten da:

Arto musker,  
mendi, baserri zaarrak;  
ale gorriz  
abaildutako sagarrak: (II)

Begia da nagusi, Lizardik erakusten digun mundu hau betiko pintatua zai-gula badirudi eta denbora berean ohar gaitetzeke, halere, artoen muskertasunak salatzen dituen ura eta emankortasunaren gibelean poetak ez dituela arto horiek unkitzen ahalko, ez eta sagarrak jaten ahalko (“ale gorri”-aren itxurak beharko

du haren herri-mina hase). Lehiorearen mitrak, kristalak bereizten ditu bi munduak.

Lurrak laster paradisuaren itxura hartzen du, Edena bezein emankor, goizeko eremuan kokatua, geriztatua:

oro laino  
mee batek estalia, (III)

Alor eta altxor preziatua, leku sakratua:

urrez oro  
eguzkiak yantzia... (III)

Bainan zer liteke Edena gizona ez balitz hor? Lizardiren poeman agertzen dena “nekazaria” da, errotik ezin ateraita dena. Preseski ez ote du gizandiak zuhaitza iduri?

Nekazari,  
gizandi bat iduri  
*soroan zut:*  
beyondeizula zuri!... (V)

Nekazaria “soroan zut” dago bainan hemen inesiboaren marka arras baiezkoa da (ez hala VII. bertsoan), egotearen zeinua positiboa.

Gizonaren bertikalitatea nabarmena da, 90º-ko angelua formatzen du lur-raren gainean.

Arraren zentzu baiezkoa har lezake errexki: hemen gizonak ez du lurra bortxatzen, alderantziz, duten harreman hestutik dira ikusten diren fruituak jalgitzen:

Oi, ene lur,  
baninduzu zerea,  
zu landu, ta zure  
sariz asea!... (VI)

Lurra paradisu, oparotasun, betegintzarraren eremu («zu landu, ta zure/sariz asea!...»), libertate eta berjabetsunaren irudi ere (nekazaria ez du nehork deustara bortxatzen, espazio zabalenari lotua dago, ez poeta bezala, kartzelatua).

Lurrak oreka, harmonia dauzka berekin.

Poeta nekazariaren itzala da edo hau haren argia. Lehiotik kanpo den bizi idealizatuan deus ez da mugitzen ez eta mugituko, gizona ere betiko “soroan zut” egonen da. Oroimenak betiko geldiaraziak ditu, denbora bailiteke geldiarazi nahi, edo iferzinaz uzkalarazi...

## II. DENBORAK

Egote eta joatearen arteko dikotomian argi dago lehen/orai-geroaren problematika zaigula agertzen.

Baiezko zentzupean dagon egotea, lurrarena, lehenari lotua dago, baserriak “zaarrak” dira, horrek erran nahi du *oroimena* gorde dela, leinuak zaindu eta hizkuntza ere altxatu.

Paisaia, bazterrak, denboraren kurrizetik (= trenaren kurritzea) kanpo dira, iragan mitiko batean betiko geldiaraziak: ez da sasoinen kurrizterik ikusten, sagarrak hor daude beti, beti hor artoak, mendiak eta ere... nekazaria, lehen gizona bezala.

Poetaren desira lehen horretan kokatzen da, ez du trenaren kurritzea barnetik onartzen. Trena, poetaren orai hurbilena da, haren barnean baitago eta haren gero hurbil eta urruna, beti oraitik gerora baitoa *denbora bezala*, erran nahi da baiezkoatasunetik ezezkotasunera.

Ikusten da poetaren indargabetasuna (“narama”) mugida zorotzaile horretan, baina trena bera *denbora da*, zoria... *Bultzi-leiotik* poeman, destinoak zeinu ezezkoa dauka, *fatum*-arena.

Nostalgia, bihotz-mina, malenkonia denboraren ezinezko uzkalte hortarik sortzen dira. Azken finean poetak errealitatea gogoaren kontra baizik ez du hartzen. Poemaren azken hitzek sekulako barne-urradura salatzen dute:

“(...) Agur  
soro, sagar, mendiak!...”

dio poetak, lurra desagertzera doalarik, agur horrek badu zer ikusirik heriotzarekin. Eta heldu zaizkigu gogora tren eta geltokietako despeditze tristeak, *partir c'est mourir un peu...*

## III. HAUSTURAK

Hausturaren tematika garrantzia handikoa da poeman. Lurra da tematika horren erdia, ardatz guziak hor dira kurutzatzen. Poesian dagon “ni”-arentzat emetasunak ainitz errepresentatzen du. Emetasuna, zentzu zabalean, emea, emaztea, gizonarentzat gorputz desiratu, fruituen ukateko “landu” nahi eta behar den emea. Poeta/nekazariak erabiltzen dituen hitzak nabarmenak dira:

Oi, ene lur,  
baninduzu zerea,  
zu landu, ta zure  
sariz aseá!...

Emetasunak arraren beharra du fruituen emateko.

Gizona egile agertzen da, bainan beti emetasunaren zerbitzuko (trenaren agresibitatea, aldiz, emetasunaren kontra doa).

Halaber, emetasuna amatasun da. Poesian den “ni”-ak amaren xilkoan bobilkatzeko tirria dauka:

“Oi, ene lur  
baninduzu zurea”.

Lurra ez luke utzi nahi, haur-untzian zegoen paradisuazko bake eta orekaz oroitzen baita. Umegaiak ez luke sortu nahi, ez luke amarengandik atera nahi... “Bainan” adberbioak bortitzki puskatzen du gibelera joateko desira eta markatzen errealitatearen sartzea: lehioa hesten da ez baititeke bestela aitzinatzetik; amarengandik atera behar da...

Bainan... ezin:  
beeko bear goriak  
narama... Agur  
soro, sagar, mendiak!...

Halere, poetaren azken agurra sobera minberazkoa da, ez du lur -amaren xilkoa aise mozten, mozten duca ere? Biziaren mugida ezezagunek espazio-denboran bultzatzen duten poetak ez du joateko hautu fermurik egin. Trena badoa eta bamean poeta bere kontresanekin.

## LIZARDIREN PROSAREN ESTILOAZ

*Zarautzen, 1996ko apirilaren 26an*

*Lurdes Otaegi Imaz*

Jose Maria Agirrek landu zituen literatur genero ezberdinen artean, batez ere olerkigintzak bilakatu du ahantzezina Lizardiren izena euskal baratzen, baina bere garaian benetan ezaguna egin zutenak bere artikuluak izan ziren. 1932an **Biotz Begietan** liburua argitaratu aurretik, Lizardiren sinadura aski ezaguna zen, hainbat eta hainbat artikulu argitaratuak zituen 1927tik hasita, eta kazetari estilo propioa borobildua zuen, euskaraz nahiz erdaraz.

Bestalde, kazetaritza izan zen kopuruz Lizardiren emaitza literarioaren sailik oparoena, izan ere, antzerkiak, ipuinak eta poesia xarmangarriak argitaratzen joan bazen ere, artikulu bidez ematen baitzituen ezagutzera Eusko Ikaskuntza edota Euskaltzaleak taldearen partaide gisa bultzatu edo eragin nahi zituen kanpainak.

Lizardiren ehundik gora artikulu artean euskaraz idatzirikoak erdia baino gehiago dira aisa, eta ez da hau portzentai makala orduko euskal kultur eragileen artean ikus daitekeen batez bestekoaren aldean ikusiz gero. 1930etik aurrera portzentaia hau are eta nabarmenago etzaten da euskararen aldera, eta garbi nabari daiteke Lizardik hizkuntzaren erabilera kultuaren aldeko irizpideari atxikirik diharduela.

Ordurarteko zenbait erdal artikulu gaztelaniaz idazteko zuen estilo propioaren eta gustu finaren berri ematen digute. Irakurraldi saio sakonak behar zituen eginak erdaraz, zalantzarik gabe, eta estilo propioa nahiz adierazmolde zehatza eta esanguratsua aurkitua zuela frogatzen dute, esate baterako, bere kazetari lan artean “Glosas triviales” izenburu orokorraren pean argitaratu zituen artikuluak, eta bereziki, aipagarri da “Tristezas de un jocosos sentimental” izenburuaz 1929an argitaraturikoak, bere nortasunaren, zaletasunen eta iritzien lekuko paregabea eskaintzen diguna.

Lizardiren artikuluetako estiloa orokorki karakterizatu nahi izanez gero, originaltasuna, dotorezia eta umorea azpimarratuko nituzke.

Lizardik oso prosa pertsonala, bere-berea sortzea lortu zuen, hainbat iturritatik turretatik edanez, euskal idazle klasikoak ezagutzen zituen eta haien dotorezia, haien prosaren zenbait ezaugarri diskurtsibo bereganatu zituen bere

artikulerik landuenetan, Axular eta Mendibururen lanekiko aitortua zuen zaletasuna igartzen zaiolarik paragrafoen egituraketan, frogatu nahi duenaren aldeko argudioak eta adibideak era pedagogikoan antolatzerakoan. Lizardiren zenbait hitzaldi landu, esate baterako, Bergarako Eusko Ikaskuntzaren 1930ko batzarrerako prestaturikoa, diogunaren lekukotzat aipa daiteke. Horretaz gain, ifarraldeko idazleak irakurtzea atsegin zuen, bereziki, hango euskalkiei berezko poesia zeriela iruditzen zitzaion eta.

Baina gehienetan Lizardik idazle klasikoengandiko kutsu kultu eta elaboratua bere garaiko beste zenbait idarlarerentzat biziren idatzietatik ikasirikoarekin bazen saiatzen zen. Bere oharretan Orixe, Kirikiño, Ander Arzellus "Luzean" etabarren artikuluetatik harturiko esamoldeak, hitzak etabar aurki daitezke eta bere prosaren lanketan maisu izan zituela ohar daiteke.

Baina Lizardiren artikuluari ukitu originala ematen dion zera hori nire ustez, euskara idatziaren iturrikoari ahozko hizkuntza mintzatuaren indar espresiboa, arintasuna eta zuzentasuna eransteko duen gaitasun aparta da. Lizardik badaki gozotasunez elkartzen iturri kultoetatik datorkion dotorezia, apaintasuna eta oparotasuna, ahozko mintzairaren zuzentasunarekin eta arintasunarekin.

Olerkigintzan bezalaxe, Lizardik prosan ere hizkuntzari indar espresibo berezia eman nahi dio, hizkuntzaren esamolderik esanguratsuenak aurkitzen saiatzen da, hitz gutxi batzuetan bilduriko pentsamenduak ahalik eta eragin handiena izan dezaketean guneetan kokatzen ditu bere artikuluetan. Azalpen gehiegirik gabe esamoldearen indarrak baliatuz irakurlearengan sorpresa, ironia, farrea edo hausnarketa eragiteko. Komeni zaionean egoki datorkiona.

Lizardiren prosaren dotorezia eta hizkuntza maila jasoa azpimarratzera-koan edo ahozko mintzairaren indar espresiboa dariola esatean, ez da ahantzi behar ordea, Lizardiren prosa etengabeko lanketa eta bilaketaren fruitu dela. Urterik urte joan zen moldatzen bere hizkera karakteristikoa bilakatu zuen hura, beti ere bere garaiko obsesioa izan zen garbizaletasunaren esparru estuarekin borrokan. Euskal prosari erdal kutsurik kendu beharrez, morfologiaren nahiz sintaxiaren alorrean eginiko zuzentasun ahalegin handiaren lekuko bilakatzen dira bere artikulerik hoberenak. Lexikoaren aldetik berriz, esan liteke hortxe zuela Lizardik zalantza gehienik garbizaletasunaren inguruan, hitz berri edo ohiezen inguruan beti kokatzen zuelarik hura argitzera zetorren azalpena.

Prosa original hori, landua, berria eta adierazkorra egiteaz batera, Lizardik beste ezaugarri karakteristiko batez zertzelatzen zuen eta orduan bilakatzen zuen erabat nahastezina: bere umore gazi-gozaoren ikutuak blaitzen ditu bere artikuluko gehienak eta puntu ironiko batek erakusten digu beti idazlearen ikuspuntu zehatzaren behagunea non dagoen.

Ia-ia bere artikuluko gehienetan aurkituko du irakurleak ikutu irrigarriaz, edo ironia zorrotzaz eta are sarkazmoz ere eginiko oharrak: zenbaitetan, pasadaz bezala eginiko ohar txiki irrigarrien bidez adierazten duelarik iritzi zirtolaria, bes-

tetan, nahigabe bezala esaten duenari eransten dion adjetiboak daramalarik benetako kargazoia...

Artikulgileen artean esan ohi den hura ederki menderatzen zuen Lizardik: artikulu on batek odoloste on batek bezalakoa behar omen du: muturretatik ongi lotua eta barrenean piper ikutu batzuk eta mamia ongi xeheturik. Odolkiaren muturrak, hots, artikuluaren hasiera eta amaiera Lizardik bereziki moldatzen ditu, eta sarritan hasten eta amaitzen du artikulua irrifarrea bederen sortuko duen ateraldiren batekin.

Esate baterako, artikuluaren hasieran, kritikatzera edo komentatzera doanari ekin aurretik sarritan egiten ditu Lizardik bere buruarekiko aipamen ironikoak, larderia edo handipuzkeri kutsuak hasi aurretik ekidin nahiko balitu bezala.

1929ko gaisoaldia zela eta sorterrira bidali zutenean idatziriko “Zarautz erdelerri” artikuluetako lehenengoan, Zarauzko fraile frantziskotarren erdalzaletasuna kritikatzeko hasi nahi zuen artikuluaren hasieran honela zioen:

“Pralle prantziskotarrak biotzez maite ditugu. Eriotzari belarriak ikusi dizkagunean, aien laguntzaz lotu nai izan degu zerura-bideko pardeltxoa. Badirudi Aita Prantzisko goxoagandiko otzantasun eta lore-usaia dariotela aldean.” (Euskera andiki-soñekoz, Klasikoak, 70 zb, Bilbo, 1995, 5 or.)

Lizardik besteren okerrak salatu aurretik bere alderdi ahulak aurreratzen ditu askotan, geroko bere kritikak errazago barka diezazkioten. Esate baterako, 1929ko “Euskal Egunerokoa” hitzaldiaren hasieran ere, denon aurrean eman duen behar duen hitzaldia berari egotzi izanaren erruduna bera izan zela aitortzen du, bere buruari zuzentzen dizkion zirrikaldiez:

“Jaun-andreak: makal xamar nengoalarik -ibillia bainaiz soro aundi-rako langa zabaldu ez zabaldu -, idazki bat, karta bat, etorri zan gurera. Emendixek bialia zan, eta... a zer nolako ‘intentzioa’ zekarren!... Euskal izketa auetxen burugoa, zuzentza, eskeintzen zidan “Eusko Ikaskuntzak”k. Omen aundiegia, leen-begiratuz; baña ez adar-jotze makala ere, bigarrenez, Ari izan baigiñan igaz, gallendu-xamaturik, ementxe, “Eusko-Ikaskuntza”-ko jaun begiragarri oiek, kolkorako esan dute, noski: -Bai, eee?... Berriketarako gogoa, beraz?... Ekiok bada zeregintxo oni!” (EAS 22-23 orr.)

Kritikazko artikuluetan, entzuleek entzun beharrekoari buruz izan dezaketen uste handiak apaltzeko edo bere buruari babesa emateko ez ezik, Lizardik umorea erabiltzen du sarritan polemikazko artikuluetan, elkarriketarikide duenari esan beharrekoak esateko, baina era zirtolarian. Askotan zorrotzasunik galdu gabe lortzen du, umorearen bidez, ironiaz polemikakidearen argudioei lepoa bihurtzea eta baliogabetzea. Hala pentsatzen zuen Lizardik, lagunaren artean berunezko tiroa behar zela eztabaidetan, baina errespeturik galdu gabe: “gauzak

gordinki esateak baditu bere alderdi onak: Etxegarai berak dionez. Adiskide artean ez berunezko baizik illaunezko tiroa bear dala uste izaten dute askoek; nik bestera; baña adiskidetasuna ezertarako galdu, ezta ere otzitu gabarik” (EAS 93 orr.).

Lizardiren ironiak erregistro gama zabala du, berak nahi adinako zorroztasuna ematea lortzen zuen. Zenbaitetan, legun eta gozo, bestetan garratzago, eta inoizka, sarkastikoa, mindua eta haserrea ere bai.

Lizardiren polemika giroko artikuluen artean bereziki azpimarragarriak bi sailditugu bereziki; lehenik, Bonifazio Etxegararekin euskara kultur mailan erabiltzearen inguruan izaniko polemikako 1930 urtearen amaierako artikulua sorta, eta bigarrenik euskal literaturan berritzaileen aurkako erasoer polemikako erantzunez idatzirikoak.

Lehenengoetan Lizardik zein polemikari trebea den frogatzen du, adeitsua, goxoa, umoretsua, haserrea ezina da Lizardiren iharduna Etxegararekiko baina egozten dituen kritikak sarkorrak dira, akuilu mingarri gertatu zitzaizkion zalantzarik gabe Etxegarairi, Lizardiri erantzunez hainbat artikulua argitaratu baitzituen, antza denez, Lizardiren kritikek kitzikaturik. Ikus nola amaitzen duen Lizardik bi artikulua luzetan Etxegarairen jarreraren aurkako era bateko eta beste argudioak landu ondoren, Euskera andiki-soñeko artikulua, “Jaun Bonipazi begiragarri ta adiskide:barkatu jardun luze, lotsagabetxo au. Egoarri gutxikotzat jotzen gaituzu, ta eramapenez lasa orni gaitela, diguzu esaten. Aolku egiazki bikaña! Egoarrik, eramapenik eta gibelik asko bear baita, euskeltza-leek txintik atera gabe euskeraren igesari begira egoteko”(EAS 89-90 orr.)

Lizardik Etxegarairen egoarria eta eramapena, berez ez ote den gehiegizko “gibela” adieraziz amaitu zuen artikulua biribil hau, gehiegizko egoarria utzieria eta zabarkeria bilakatzen ari ez ote ziren iradokiz.

Zalantzarik gabe eztabaidetan ohiko diren hurbiltze eta urruntze jokoetan maisu agertzen zaigun Etxegararekiko eztabaida honetan, estilo aldetik aipagarrienetako bat izan zen “Aitareen erreal bikoak” izenekoa. Etxegarai bere artikuluei erantzunez idatziriko artikulua mordo haserrearen erasoari amaiera emateko gogoz idatziriko artikulua honen haseran kokatu zuen esalditxoak “Noiz atertuko nengoan, azken argipen batzuk, laburki, Etxegarai jaunari emateko” (EAS 97 orr.) Hitz bitan, baino zehatz, marrazten digu bi polemikakideen egoera: Etxegarai haserre, isildu ezinik eta Lizardi berri bere burua gerizatuz, baina etsi gabe.

Etxegarai berari zuzentzen dizkion erasoek dibertitu egiten dutela dirudi. Zerrendan jasotzen ditu baina ondotik berak handiagoa emateko, zakur-zakur:

“Egi biribil samarrak bota bear zitula agindu zigun Etxegarai jaunak, eta ona emen batzuk: odol-berotxo, bazter-nastalle, eztabaikari alpe-rrikako, arroxko ta artobero-uxai omen naiz. Oietaz gañera, buru-ar-



lotea, andre Jakintza, andre Kultura askorik maite ez dutenetakoa, alegia.

Apaltasun gezurrezkoz gere buru au jantzi-az, oiek egitzat aitor ditza-gun... Eztabai-gaiarekiko ain axola gutxiko ezpalira!”(EAS 99)

Lizardiren polemikazko artikuluen artean, mingotsenetakoak Kirikiño sariaren sorreraren ingurukoak izan ziren. Kirikiño jubilatzeak zela eta, haren izena eman nahi izan zitzaion kazetariari sariketa bati, diru biltzen hasi orduko eztabaidak sortu ziren eta boikota ere bai. Istilua areago mingostu zuen Kirikiño handik gutxira hil eta sariaren auzia amaitu gabea izateak. “Ez sari eta ez eskupeko” tituluz argitaratu zuen artikuluan ironia garraztu egiten zaio Lizardiri euskal gaietan garaiko euskaldunen zekenkeria sumatuta:

“Euskerari erderazko itz putzak esateaz gain, besterik oiuztatzez ere bagaituzu euskaldunak zintzurak larruturik, eta inguruko arrotz guziek asperreraizita. Alegia, aspaldidanik, larru meezko jatorri-agiria erakusten baño arrokiago, or goazkizu esaten itzez laburtxoak gerala,baña...egitea, ordea?... egitez lukaika baño luzeagoak!.. Au ere ez da ziri makala!

Il zan “Kirikiño”. Eneee! Ura lotsa, ango iskanbilla, gure negar-zoitiñak, oroen bularra lertubearra!... zer zan ura? Guziok agurka, guziok goreska, guziok illetari: alako gizonik gutxi zala, ari euskerak onenbeste zor ziola, aretxen oroitzapena beintzat etzala iñoiz gure gogoetan itzaliko!

Arako gizagajoak —munduaren izen ona zaitzeko Jainkoak jarriak, alegia— alkarri esaten zioten: “Oraingoan, orraatik! Oraingoan bai, etorri bear dik urreak erruz, urregorritzko baitira, biotzarekiko, oien malko samiñok... Amar milla laurleko, alajaña! bai, geixeago ere, eman baietz, alkarren leian, beartsuak eta aberatsak!” (EAS 41).

Artikulu horretako amaiera aldera ordea, Lizardik ironiaz eginiko aipamen hauen arraidura sendatzeko bezala Kirikiño berari zuzentzen zaio barkazio eske bezala, eta, berotasun gutxiagoz, baino hausnarketa gehiago eta irribarre gutxiago eragiten duten komentarioak eginez:

“Kirikiño gaxoa”... Zenbatu ezin-ala zenituan adiskideak. Nork uka lezake, aien illeta-eresia oiartzunga baitago oraindik?... Lurralde berrietik —Jainko argizko lurraldea!— ezer ezpaitira or beeko bizitza-gau onek aunditu oi-dituan atsekabeak, ez bide da zureganaño eltzen gure diru-otsa... Ez erreza izan ere, ezpaitago otsik! Ez beza, ordea, iñork artatik atera gure adiskide aundiaz aztu geranik: baizik, ainbestetaraño dala guri-gozoa gere maitetasuna, beldur baigenduke maitearen pakea urre-tintin zakarrez autsia!.. (EAS 43 orr.)

Egia izatea nahi lukeen gezur batez errealtate prosaikoak estaltzekoa egiten du Lizardik artikulua honen amaieran, baina are nabariago egiten da, errealtatearen zakartasuna eta bere sentimenduen arteko distantzia, ironiaren indarrez.

Kirikiñoren heriotzaren ondoren eta sariaren gaiak idatziriko artikuluarri amaiera ironikoa baino lirikoa ematen asmatu bazuen ere, beste zenbait artikulutan gaiaren inguruko polemika biziak berotuta, Lizardiren ironiak erregistro sarkastikoagoak hartzen zituen.

Lizardiren Bergarako edo Zumaiako hitzaldien estilo zaindua eta landua, edo “Euskera andiki soñekoz”ekoa, zenbaitetan jasoa eta bestetan lagunartekoa, “Olermen irakite” edo “Erdibearra”eko lirika eta irudi metaforikoez ernari dagoen prosa horrekin ohituriko irakurleari, edo beti umoretsu, bizi eta ohar gazi-gozoez zipriztindua dagoen prosa neurtu eta igurtziriko horrekin ohiturikoari, benetan deigarria egingo zaio “Gure bidetako mugarrak” artikulua, Lizardik idatziriko azkena, bere estiloak har zitzakeen erregistroen aberastasunaren lekuko pargabea dena.

Berezia da, zalantzarik gabe, artikulua hau, eta beharbada zati bakar batek ez lezake artikulua honetan Lizardik bere prosari eman zion tonu sarkastiko mingotsaren berri eman. Izan ere, hizkeraren erabilera maisutasun aparta erakusten baitu, bere aurkakoen armez baliatzen delarik bere burua gerizatzeko. Inoiz ez bezalako hizkera mordoiloan idatzia dago artikulua, Lizardik berak ere erraz eta herrikoi idatzi zezakeela frogatuz, baina bera idazle zail berrizatzat salatzen zutenek bere ohi zutena baino askoz erregistro herrikoiagoaz erantzuten dienez, burla bihurtzen da. Erdal maileguak edo, erdarazko esatera osoak erabiltzen ditu artikulua honetan, berariz, edo erdal hitzak barnean dituzten euskal esaterak: “serio samar jarrita”, “eskribatzalle”, “nazioak”, “diru-kontuan”, “el patrón oro”, “errenditu”, “El patrón Txirrita”, “El patrón Mujika”, “El patrón Jauregi”, “errazago konprende dezazuten”, “deskantsu-arri”, “planto egin”, “erderazko teatro au traduzitu bear diguk”, “vanguardismoa”, “tristeia”, “denok eskribatu dezagula “con sintaxis” esaten dana”, “aproatu”, “kunplitzen baditugu”...

Lizardik aitortua zuen lagunek eskatzen ziotela “más argi y menos garbi” idazteko. Horregatik, bere “idazle ilun”aren ospe horrekin zirrikaldi ugari egiten zizkiotelako egiten ditu bere errazaletasunaren aipamen ironikoak artikulua honetan zehar. Konparazio baterako, euskal eredu errezenetatik zailenataraino arteko zerrendakoen artean berak errezena duela gogoko esaten du:

“Ni —guziok ezagutzen nazue— errez amorratua naiz, ta argatik Txirrita-arria daukat aukeratua.”(EAS 130 orr.)

Horregatik, errazale denaren bentajak balitu bezala hitzegiten du, sarkasmoz:

“Saieskia babarrunetan egosia baino naiago omen luteke euskeraz idazten dan guzia nornaik atxitzekoa balitz; baña, beren lan mamijario

oiek nai baño nekezago sortzen dira... Ai! Ez nik bezela jokatu baltute: bertsotan naiz itz zelaiez, nik barrena ustutzea, ta Bedaiorañoko guziak mara-mara jabetzea, guzia bat izaten baita!...

Denak ez dira ordea, artarakoak. Berez bear Billabonakoa. Ta gauzaez oeri, zer egin bear zaie? Ukatu egingo al diegu beren erako mugarri lakartxo bat bederik bidertzean sartzea?...

Ara. Badet nik laguntxo bat. Erraz-zale purrukatua da, iñorena irakurtzerakoan. Baña, bera idazten asten danean, luma biurritzen zaio, ta iñork ez dio kolperik konprenditzen.

Gertatu izan zaio iñoiz adiskideen batek lantxo bat eskatzea: "Aizak i, itzaurre bat egin bear diak; erderazko teatro au traduzitu bear diguk..., Baña!... (au eskua altxata) faborez! erreza izan dedilla, e?... Vanguardismorik ez diagu bear!... Koitauak, bada, egiñalak egiten zintun, ni naiz testigu; ustez, aingeruak baño malizi gutxiagokin itzak josten zintun; gustoa egingo ziolakoan, bere lantxoa eskaleari ematen zion; ondorenen zai gelditzen zan, begi zearka... Otza ta kopetan zimurra besterik etzun nabari izaten bazterretan, eta geiago gabe atsekabez beterik etxera baztertzen zan. Ez izan nonbait Billabonakoa." (EAS.131- 132 orr.)

Lizardiren artikuluetako asko eta asko bere garaiko testuinguruari edo polemiko giroari loturik daudelako interes gutxikotzat joko lirateke, baldin eta ilustratzen saiatu naizen estilo erakargarri honetan idatzirik ez baleude. Estilo dotorea, landua eta literarioaren errejistroak bezain egoki eta maisuki erabiltzen jakin zuen umorez, ironiaz edo sarkasmoz zipriztindutako pasarteetako irrijo-rrazko iharduna, sarritan kritikatzten zuen jarrera absurdoa edo jasanezinen aurreko etsimendua eta amorrazioa adierazteko bide ere bazena. Nire ustez, Lizardiren idazlanok estilo dotore, literario eta ironiko horrek zigilatzen eta baliotzatzen ditu, aldi berean.

Bestalde, Pizkunde garaiko jarrerak eta pentsamoldeak hobeki ezagutzeko parada atsegina eskaintzen dute Lizardiren artikuluek. Esate baterako, Eusko Ikaskuntzaren barruko aktibitateak eta jokaerak, Euskaltzaleak taldeak eratzen zituen ekintzak eta jailadien nondik-norakoak... Azken horiei buruz mintzatzen da, esate baterako, eta egindako ahaleginari buruzko hausnarketa egiten du Labaienen "Euskal-Eguna" antzerkiari eginiko hitzaurrean. "Atari-Jarduna" izenburuaz argitaratu zuen saiotoxoan jaialdi horiek antolatzeke lanak azaldu ondorenean, honela zioen "Bai. Ori guzia ederra zan. Batez ere, erbestetik lasalasa zetorrenak ala zerizkion. Baña aurretiko nekeak?... Zenbat eskutitz, zenbat joan-etorri, ta itzul-inguru, ta diru-biltze, ta bizkar-ezur biguntze, ta amorrazio latz! Beti agintarien azken erabakia zer izango. Baimenik iritxiko bazan, zirauna lurtean baño areago bear ibilli. Uriko batzorde-osatzea ere lanbide irris-tagarria zan. Jakiña, alderdi ta margo guzietarik bear, ta agintarien aldekorik, berriz, eztago zer esanik: batzorde burugoa eman oi genion. Bai berak ere

ñoizka lan larriak guri! Arik eta —jatexe-jabea bazan, noski— arako dantzarien bazkari gora-bera eskeñi arte, ez gendun lo onik izaten. Batzutan alkatea, bestetan sekretario biurria, urrena auzo-errien arteko ezin-ikusia, apaizek ere atera oi zituzten aldika beren maratiltxoak —geienetan laguntzalle sutsuenak genitun arren—: zana zala, korapilloa ta burruka, bear ez aña. Burruka ixilla, ori bai; ezpañetako irriparre biguñez ta ezkerreko eskuan biltze' aal zenduan zuurtasun apurrez irabazi bearrekoa” (EAS 143-144 orr.)

Lehenengo euskal eskolak sortzeko, euskal egunkaria sortzeko, idazleen lana bizkortzeko sariketak, ekitaldiak etabar antolatzeko eginiko lan asperre-zinarren islada eta lekukotza ere badira Lizardiren artikulua.

Baina baita bere ihardun literarioaren inguruko idazlanak ere ‘Erdi Bearra’ eta ‘Olermen irakite’ bezalakoak. 1930etik aurrera, gero eta ugariagoak dira literatura inguruko artikulua eta asmo literario hutsez idatziriko saiotoak ere bai.

Literatura Lizardirentzat autonomiadun arte bat da, gizartean funtzio bat bete lezake, eta berak sinesten du benetan betetzen duela, baina berezko erritmoa du literaturak, ez daiteke antolatu, behartu edo dirijitu eraman behar duen bidea. “Olermen irakite” edo “Erdi Bearra” bezalako artikuluek literaturaz duen kontzeptzioa ematen digute aditzera estilo bereziki ederrean, bere prosazko lanen artean goi-mailakoentzat jotzen diren idazlanak bilakatzeraino. Lizardirena normaltasunaren erreibindakazioa da, baina gurea bezalako hizkuntza baten egoera soziolinguistikoan bere aldarrikapenak irauli egiten zituen ohiko euskaltzaleen irizpideak eta Aitzol bezalako proiektu salbatzaileak.

Izan ere Lizardik eta Aitzolek literaturaz eta honen gizarte funtzioaz duten ikuspegi ezberdintasunetik sortu zen eztabaida zerean datza, gizarte-funtzio hori literaturaren gainerako funtzio guztien aurretik jarri behar den ala ez, eta jakina, Lizardik ezetz deritzo, eragin sozial hori, izatez gero, belaunaldiz belaunaldi gertatzen dela, literatur mota eta maila guztietako loratze askearen fruitutzat.

Lizardiren artikuluen artean aparteko saila merezi dute literaturaren inguruko artean, kritika literariotzat izendatu litezkeenak, “San Luisen Bizitza” edo “Gure Baratzatxo” bezalakoak, zein irakurle ohartua zen erakusten digute; halere, Orixeren prosazko eta bertsozko obrei buruz eta Lauaxetaren “Bide barijak” liburuei gazteleraz eskainiriko kritikoa literarioek Lizardiren nortasun literarioaren irudi gardenagoa ematen digute, zein zorrotza den kalitate literarioaren alorrean, inoiz ere adiskidantza berotasuna gutxitu gabe, baina atsegina izateko gogoak kritikaren leialtasuna lausotzen ez duelarik.

Gogoangarriak dira, era berean, asmo polemikoz idatziriko “Andereño Izardi”: garaiko andere ederrenaren aukeraketa egiteko sariketez diharduen irri-jorrazko artikuluxka, edo lagunekin ifarraldera eginiko ibilalditxo azaltzen digun “Donapaleura joan-etorria” izenekoa. Baina are aipagarriagoak dira lite-

ratur asmo hutsez idatzi zituela pentsatzen dudan “Etxe barne Bizia” izeneko bi artikulua, lehenengo Espainiako Parlamentuaren bilkuretako baten kronika ohartua dena, eta bestea bere etxeko giroa deskribatzen duena.

Gaztelaraz idatziriko beste zenbait artikulutan sumatzen den bezala, Lizardiren prosaren estiloak, dotorezia, erregistro ezberdinetan iharduteko dohai paregabea, ironia eta umorea konbinatzen dituela aipatu behar da, baina bere estilo horrek deskripzioan lortzen du bere goren maila. Lizardiren artikuluetan sarritan agertzen dira pertsona, egoera edo paisaiaren deskripzio deigarriak. Horregatik, bere estilo deskriptiboaren indarraren berri bazekielako landu zituen bereziki, bere hitzetan esateko, “bodegón viviente” edo “ia zinea” diren “Etxe barne bizia” izeneko bi artikulua.

Lizardiren prosazko lanei eginiko omenaldi xumea izan nahi duen nire hizalditxo honen amaieratzat, aipatu berri ditudan azken hauen artekoen bat irakurtzea litzateke egokiena, baina ez nizukek entzuleoi tristuraren gauda begietaratu nahi gorasarre honen amaieran, garaiko giro politikoa azaltzen zuen etxe barne biziaz handik gutxira gertatu zirenak ere oroimenera etorriko baiditzaizuke. Bestetik, bere etxeko giroaz eta haurren inguruan zituen itxaropenak gogoratuko banizkizue, aldiz, zein denbora gutxi geratzen zitzaion, eta bere nahiak nola zapuztu ziren jakiteak bihotz-mina emango liguke...

Horregatik, amaitzeko, bere dohai deskriptibo paregabea gorasarre eginez amaituko dugu, eta irrifarrea ezpainetan dugula gainera, Donapaleura joan-etorri hori Lizardirekin batera egin zuen adiskiedetako bat, “Uitzi” izenez aipatzen duena Nikolas Ormaetxea “Orixe” baitzen.

Lagun mina izan zuenaren deskripzio gogoangarria egiten du, baina zeharka bezala, joan-etorriaren gora-behera xumeak jaulki ahala. Kontakizunaren harira, Orixeren portaera, iritziak, izateko era etabar erretratatzan ditu, umorez, eta, aldi berean, samurtasun handiz.

Iparraldean Donapaleuko jaialditxoan izan eta gero, itzulian Nafarroako Elizondon geratu ziren afaltzeko, “Ordun azaldu ziran gure arteko zaarpil guziak. “Uitzi”k artu zun, leenbizikoz, astindu eder samarra. Nik, aren berri nekian bakar onek, galdegin nion, biurriki: —Ta?... “Uitzi”... goizekoa esango al degu, ba?... Larri zan gizagajoa! Ukabilla estu-estu egiñaz: —Jainkoak barka!.. Ez gero!... Gure mai-muturreko lagunak -Larrain eta Rekaldek: —Zer,zer?... Jakin biar diagu ori... Ta zirika nik, berriro; ta, berriro —jateari zearo uzteka, noski —“Uitzi”k: —Jainkoak barka!! Ez dezazula esan!!!..

Gezurra dirudi latiñez ta griegoz jakin gizonak eta “tranpa” txiki bat airtzeko ainstesterañoeko lotsa.

Baña alperrik ibilli zan. bein artara ezkeron ni ere enengoan ixiltzeko, ta aren urduriak gero ta axkureagotzen ginduzen guziok. Ta, astiro-astiro, itzez-itzez... orra jalki guzia...

Ura jolasa atera zuten artatik beste biak! ...Polita zala jokoa, alegia!... Ea ura al zan bere burua agiriz, idaz-bidez, zintzo ta zuzentzat erakuska diarduan kristauaren egitekoa?... Bazetorkela urrena ere zuurtasuna, gizabidea ta olakoak aipatu ta gorensten: esango zutela berok, nornaik ikasteko eraz ta tokian, giza-seme makur ura nolakoa zan larrugorrian ikusi ezkeru!...

Entzutekoa zan, ta parrez lerregin bearrekoa, ango aria. Larrain sudurruts betaurreko-aundi burusolla ta Rekalde betozko-illun bizar-beltza, patata errea baño legorrago biak, "Uitzi"ri berebizikoak botatzen... Ta "Uitzi" gizagajoa, berrogei urtetik gorako gizaseme tinkoa, estu ta larri, esku batean ogi-puska ta bestean ollasko-izterra (ta agoan bietarik aski), bere burua gerizatu eziñik, neri erru guziak egotzi naiean, neronek alako egin bideetan sartu bai omen nun (egia zanez...)

Eskarrak gerekin genduan apaizari. Oben artarik, eta aren antzeko guzietarik, bertan jaretzen ginduala esan baitzun; orduntxe "Uitzi"ren gogape bildurbera asi zan baretzen, ta ekin zion jateari biziagoki, leen galdu astiaren ordañak nondik jasoko.

Beste gairik asko maxiatu zan. Aitatu zun norbaitek erderaz ta euskaldunen itsusiz ta kaltez idazten duan eusko gazte bat... Baita ere orretzaz "Uitzi" k iñoiz argitaratu iritzia. Izan ere, badirudi gure errian arrogarritzat artzekoa ote dan beste iñon lotsagarri litzakena... Berotu zan "Utzi" bere aburu-alde, ta igerri zion alegia patarraren ontzixkak: ipurditik autsi baitzun, mai gañean ukaldika..." (EAS. 160-161 orr.)

Bukatzer a noa horrenebestez, eta mila esker entzule izan zaituztedan guztioi.

## LIZARDIREN AMETSEZKO BIDAIA

*Zarautzen, 1996ko apirilaren 26an.*

*Karlos Otegi*

“Bidaia” kontzeptua zentzu estuan, berezkoan, eta zentzu zabalean, irekian, har daiteke.

Zentzu, modu estuan ulertuz gero, bidaia, aurren-aurrena, bidaia erreala da, bidaia gauzatua, egiatan burutua, eta dakigunez, berez, ibilaldi luzea, espazioan zehar egina, denbora tarte luze xamarra eskatzen duena, paraje ezezagun edo urrutietarantz zuzendua.

Zentzu zabalean hartuz gero, berriz, bidaia litzateke ez soilik bidaia erreala, baizik eta baita imaginarioa ere, irudimenez, ametsez, desiraz egindako bidaia; orobat, bidaia, zentzu zabalean, ez litzateke bakarrik bidaia propioki, berez, dena, baizik eta baita ere, analogiaz, konparazioz, irudiz hitz eginez, pertsonak, norberak, era batera edo bestera, bere jokabide edo pentsamoldean egiten duen edozein aldaketa, mugimendu, desplazamendu, bai fisikoa, lekuz eta denboraz, bai izpirituala, barrukoa, barnekoa.

Bidaia zentzu zabal honetan hartzen bada eta Lizardiren lan literarioa —eta bere bizitza— arretaz aztertzen, zera sumatzen da: gure idazleak hiru bidaia mota burutzen dituela, hiru modutara dela bidaiari.

### a) **BARRURANZKO BIDAIA**

Lizardik bere barrurantz, bere barne-barneko muinerantz bidaiatzen du, edo, nahiago bada, sakontzen du. Lizardi, bere poemetan —eta baita bere bizi-esperezian ere— bere barruko gune sakonen eta izkutuenerantz daraman bidetik dabil, gogoz, izpirituz.

Jarrera hau bere poemetan nabari da argiro. Lizardik bere adimenean eta, batez ere, bere bihotzean sakontzen du. Horrela, “Biotzean min dut”, “Ondargorri”, “Gure mintzo”, “Etxeko keea” edo “Etxeko sagastia” bezalako poemetan, bere sentimendu, desio, atxekimendu eta oroitzapen barnekoenetariko batzuk bildu eta erakusten dizkigu.

“Agur!” poema bera ere, barruranzko bidaia bat da. Poema honetan Lizardik egin, eta poetikoki adierazi, nahi duena zera da: gaixo dagoen, burua galdu duen bere adiskidearen —Onuzkiren— adimen eta bihotzean sartu, nahasmenduz jotako adimen eta bihotz horietara iritsi, eztiki, leunki —loak hartutako basoan ilargia baino eztiago, dio Lizardik— adimen eta bihotz gaixo horiek suspertzeko, barrutik piztarazteko.

Badira “Asaba zaarren baratza” eta “Gure mintzo” olerkietan zenbait bertso-lerro non Lizardik, modu labur eta trinkoz, bere barne guneaz eta gune horretara iristeko bidaia eta ibilaldiaz espreski, propioki, mintzo den. “Asaba zaarren baratza” poeman, gure poetak esaten digu nola bere asaba zaarren baratze horretan sartu eta hutsik, utzia, hondatua, ikustean, bere barru-barruan gordetako aspaldiko oroitzapenek, joandako garai argitsu eta oparo baten oroitzapenek, jadanik galdutzat zeuzkanak, berriro azalera, kanpora, argitara etorri nahi duten:

*Barru-muñeko gauean,  
su itzalitzako zaarra gar gorri  
dabilda biur-naiean.*

Hau da, nere barru-barruko gauean, ilunean, muinean, itzalizat nuen, ustez itzalita zegoen su zaharra, aspaldikoa, gar gorri bihur nahiean dabilkit orain.

Eta “Gure mintzo” olerkian, poeta, irudimenez, zurubi edo eskailera bihurrez, bere izatearen leku sakoneneraino jaisten da, barne muin horretan gordeta zeuzkan oroitzapen aztarnak bilatu asmoz:

*Ordun, yetxi nazu lezera;  
nork gere muñean dugun itzalera.*

Beraz, bidaia, jaitsiera, sakontzea, gau, itzal, leize ilunera, gizakiok, guztiok, baita Lizardik ere, geure muin-muinean dugun eta nekez ezagut daitekeen eremu horretara, aurrekontziente eta inkontzientearen mugetan kokatzen den gune horretara.

## b) INGURURANZKO BIDAIA

Bere barrurantz bidaiatzeaz gain, Lizardi bere ingurura irteten da, bere ingurumarietan dabil; bidaiari da bere inguru hurbil, ezagun, egunerokoan. Hau da, hain zuzen, bai bere poemetan, bai bere bizitzan, Lizardik maizen burutzen eta garatzen duen, eta guk ondoen ezagutzen dugun poetaren bidaia mota.

Lizardi, bidaiari gisa, bere mendirantz ateratzen da, bere mendira igotzen da, “*Berriro igo nauzu ene mendira*”; basoan barruratzen da, “*Basora naiz*”, “*Udaberri, uste-ezik, / arki dut basoan*”; asaba zaharren baratza iristen da, “*Otzaldi zoro baten itzuli, / yoka nagokik atea*”; Zarauzko —Ondaurtz, bere poemetan— inguru ederraz gozatzen da, Muno-txiki, Mendilauta, Zarauzko ka-



lea, Frantziskotarren komentua, eta abar; itsasertzera hurbiltzen da eta haren kresal bixigarria nabari du, “*Gesal eiozko bisutsa / emen duk berezi*”; Tolosa inguruko parajeetan ibiltzen da eta Txindoki mendia ikusten, “*Neguz untzi lirain, laño-gañean, / Txindoki, orain agokit aurrean*”; eta abar.

“Bultzi-leiotik” olerkia, “*Oi, lur, oi, lur!*”, da, agian, Lizardik bere inguruan zehar egiten duen bidaia, ibilaldi honen adierazgarririk bikainena. Marxan doan treneko leihotik begira, gure poetak, goiz jaio berrian, bere lurra, Euskal Herriko lurra zeharkatu eta ederresten du:

*oro laño  
mee batek estalia,  
urrez oro  
eguzkiak yantzia...*

### c) URRUTIRANZKO BIDAIA

Zentzu analogikoz, konparazioz, “bidaia” deitzen ditugun bi bidaia mota hauez gain, hots, barruranzkoa eta ingururanzkoa gain, Lizardik hirugarren bidaia mota bat burutzen du: urrutiranzkoa, toki ezezagun eta urrutietarainoko bidaia.

Aurreko biak, berez, gehienbat, sakontzeak, hausnarketak, irteerak, paseo moduko ibilaldiak badira, oraingo hau, bai, propioki, bete betean, bidaia da. Leku urrunetarantz egindako honetan, egiazko bidaia baten ohiko osagarriak aurkitzen ditugu: helburu edo jomuga bat, prestaketak eta irteera edo abiatzea, paraje ezezagun eta ezohikotan barna jarraitutako ibilbidea eta, agian, itzulera.

Lizardik, bere bizitzan, ikasketak edo lan arazoak zirela medio, Espainian, batez ere Catalunyan, zehar bidaiatu zuen; baita Frantzian —Parisen egona zen— eta Alemanian ere, bere eskutitzetan jaso daitekeenez. Guzti hauek bidaia errealak, egiazki gauzatuak dira.

Baina, orain, axola zaiguna, batez ere, bere bidaia imajinarioa da, bidaia ez erabat baina bai neurri batez gauzatua, irudimenaren, desiraren bidez. Munduan zehar, munduari bira eginez, ametsez, gartsuki, buruturiko bidaia dugu hau. Lizardiren bidaiarik luzeena da. Honi eskeiniko diogu, hemendik aurrera, gure arreta.

Munduan zehar, Euskal Herriko urruti dauden lekuetara egindako ametsezko bidaia hau, bi testu edo idazkitan dago jasoa, azaldua: bata bertsozkoa, “Eusko-bidaztiarena” bere poema ezaguna, 1931koa, eta prosazkoa bestea, gutxiago ezaguna, “Alain Gerbault. Itxasozti bakartia”, hau da, nabigatzaile bakartia, izenburu duena, kronologikoki poema baino lehenagokoa, 1929an ida-

tzia eta 1930ean argitaratua baita (1). Bi testuok elkarren artean oso estuki lotuak daude.

Lehenengo testuan, “Eusko-bidaztiarena” olerkian alegia, ongi ezaguna denez, Lizardik euskara “*zernaitarako*”, “*noranaiko*” nahi du; edozein gai, edozein errealitate azaldu ahal izateko gertu, prestatuta nahi du euskara. Lizardirentzat euskara gai da, bai, baserri giroa, mendiko errealitatea, itzuli, adierazi, poetikoki kantatu ahal izateko, baina unibertsoan badira beste mundu asko, arrotzak, ezezagunak; horiek ere adieraztera iritsi behar du euskarak. Hizkuntza berrizatu, gaitu egin behar da, “*yakite-egoek igoa*”; bere oinarria gorde behar da baina bere itxura, azala, berritu, zaharberritu alegia, edo Lizardik bere poeman dioen moduan,

*soña zaar, berri gogoa;*  
*azal orizta, muin betirakoa.*

Horrela, Etxeparek lauhun bat urte lehenago euskarari, mundura irten zedin, zuzendutako gonbidapena berrartuz, errepikatuz, “Heuscara, / ialgi adi kanpora (...) Heuscara, / habil mundu guzira”, Lizardik, poema honetan, ezkonbidaia, ezkonberrien bidaia bat imajinatzen du: ezkonberriak, poeta eta hizkuntza, euskara, munduan zehar, munduaz harantzago ere, unibertsoan barrena, izarretaraino, doaz, elkarrekin errealitate berriak aurkitu, jaso, itzuli eta bertsoz, poetikoki, kantatzeko. Poeman, biok, eskua elkarri emanez, irudimenez, desioz, itsasoak, irla-multzoak, basamortu zabalak, izotz-herriak, hiri nagusiak, “*Ortiz oro eta egute oro*”, zeharkatzen dituzte. Euskara, honela, gai bihurtu behar da mundu guzti hauek itzultzeko. Helburua ez da, noski, -itxuragabekeria bailitzateke- euskara mundu osoan zehar zabal dadin, mundua euskara sar dadin baizik.

Beraz, bidaia, gehienbat itsasoz egindako bidaia, da poema honen egitura artikulatzailea.

Beste testuan, prosazkoan, Lizardik Alain Gerbault nabigatzaile frantziarrak, belauntzi batean, bakar-bakarrik, munduari bira eginez 1923tik 1929ra bitartean burutu zuen bidaia jasotzen du, kontaktzen du. Oihartzun handiko bidaia izan zen; Gerbaultek berak liburu bat idatzi zuen bere bidaiaren xehetasunak emanez. Bidaiak hainbesteraino erakarri zuen Lizardiren arreta eta interesa ezen artikulua luze bat eskeini zion, orain aipatzen ari garen artikulua, hain zuzen.

Zer esaten edo jasotzen du Lizardik artikulua honetan? Zein da beronen oinarritzko edukina? Labur eta irakur ditzagun pasarte esanguratsuenetariko batzuk.

(1) Lizarditar Xabier, “Alain Gerbault, Itxasozi bakartia”, *Argia'ren Egutegia*, Donostia, Iñaki Deunaren Irarkola, 1930, 68-74. orr. Lizardiren artikulua hau berrargitaratua izan da berriki —gurea jadanik inprimategian zelarrik— Erein argitaletxearen eskutik, “Milabidai” saileko *Gerbault bakartia* liburuskan.

Alain Gerbault —idazten du Lizardik—, “ingeniero argia da, guda nagusian egazkari (edo abiadore) ausarta izana, kirol-zale amorratua, batez ere «tennis» deritzan sare-pelota jokoan. (...) Ta gure gizonak zortzi toneladako ontzi-txo bat aukera ta erosten du, liraña bera (...). Aize-oial utsezkoa da (...). Ingeles ez zun ontzi orrek izena —«Fire Crest», au da: «Suzko Gallur»— ta Alainek eztio aldatu”.

1923ko apirilean itsasoratuta, Europatik abiatuz, Atlantikoa zeharkatu ondoren, “Alain [jarraitzen du Lizardik] New-Yorketik 1924.eko urrilla 2.ez abia, ta aurtengoxe [1929an alegia] garragarrilla 11.ez —lau urte ta zortzi illabetez gero— Azores ugarteetara (isleetara) eldu da; beti sarkalderuntz (eguzkia sar-tzen dan alderuntz) ontzi-aurrea dula; irurogei milla kilometro itxasoz, bakar-bakarrik eta aize-indar utsez, bete ondoren. Beraz, leengo [Europa-New York] eta oraingo [New York-Azores] bide-aldi biak elkartuaz, lurbira osoa egin du. (...) Iñoiz gaurdaño egin etzana, lurbira ori guzia gizon bakar batek —bera ontzi-nagusi ta bera ontzi-morroi— ibiltzea”. Elkano, esango du Lizardik, izan zen lehenbizikoz munduaren biribil osoa neurtu zuena; Elkanok, ordea, lagunak bazituen, Alain Gerbaultek, berriz, ez.

“Oraitsu [segitzen du Lizardik], Alain Gerbaultek, bigarren bide-aldi arri-garri orretaz liburu bat argitara du. *À la poursuite du soleil* du izena: euskeraz *Eguzkiaren jarraika*. Bide-aldiaren erdia artzen du, ta beste liburu baten bidez emango omen aren ondarra. *Eguzkiaren jarraika* ortatik jakingarri batzuek jaso ta ipiñi nai ditut emen.”

Lizardik, jarraian, Gerbaulten bidaiaren xehetasun eta pasadizo zenbait jasotzen ditu. Horrela, adibidez, zertan ematen zuen eguna, denbora, itsasoan, azaltzen du: eguraldi ona zela, zenbaitetan irakurri egiten zuen, besteetan eguneroko berriak idatzi, fonografoa entzun, edota arrantzan egin. “Baña [idazten du Lizardik] zori ederreko arrantzalea da Alain: geienetan eztu, arraiak atxitzeko, bere burua nekatu bearrik. Arrai egalariak bai baitira urrutiko itxasoetan, ur-azaletik ate berebiziko jauzka aundiak egiten dituztenak: olako zenbait, noiznai, ontzi gañera datozkio, eskua luzatu besterik ez tula...”

Hau giro ona zenean; ekaitza, “amarna metro ta geiagoko uin edo olatu aundiez inguratua” zegoenean, horrelakoetan “egun osoa timoiari itsasita (...) egona zan”, iñoizka batere lo egin gabe “ontzi gañean erne gau osoan”.

Lizardik bere artikulua ren tarterik handiena Gerbaultek Polinesiako irleetan egindako egonaldia ren azalpenari eskeintzen dio. Hara nola deskribatzen duen atoloi bat: “Ikusgarriak omen dira, Alainen esanaz [dio Lizardik], ‘atoll’ oiek. Itxas-xamorro mota batek apurka-apurka egindako lana dira. Biribillak, erastuna irudi; toki bakar batean etenak, barreneko ur geldirako sarbide. Erastun dalako ori oso axala baita; aretxengatik urrutira legorrik ezta ageri, ta uts-utsik gañean sortutako zuaitz (arbol) ederrak. Kanpotik, itxas zabala aldetik, olaska ta apar zuria; barrenen, erdiko ur geldi-geldian, ametsezko pakea; ta,

ondora begiratu ezker, margorik biguin eztiak. Ta ugarte zoragarri oietan jendea bizi da; bertar (berta-tar) edo 'indijena' beltzak”.

Gerbault Karibe itsasoan, Ozeano Bareko irleetan —Galapagoetan edo Polinesiako zenbait uhartetan (Mangareva, Markesak, Bora Bora edo Tahiti), adibidez— ibili zen eta uharte guzti horietan egundoko harrera egiten zioten, opariz josi eta elkarren arteko lehian iharduten zuten Alain beren bazkaldar izateko. “Perla arrantzaleekin ere [erasten du Lizardik] egun eder batzuek bota zitun. Igarilari izugarriak omen dira. Lasa-lasa egin oi dute, tiburoiez jositako uretan”.

Gerbault txundituta ageri da paraje, irla haien ikuskizunaz. Baita Lizardi bera ere esaten duenean, harridura honen arrazoia emanez: “Alako lurralde ederrik, noski!... Benetako atsegin-toki edo paradisoa omen-dirudi...”

Tankera honetan, beraz, taxutzen du Lizardik bere artikulua, Gerbaulten bidaiaren berri emanez.

Bi testuen, poemaren eta artikulua, aurkezpena egin ondoren, hel diezaiozun bereziki bigarrenari, nabigatzaile frantziarrari eta beronen bidaiari luzeari eskeinitako artikuluari, Alain Gerbaultentzat erreala den eta Lizardik irudimenez, ametsaz, bere-berea egiten duen munduan zeharreko bidaiari.

Eta hori bi helburuz. Artikulu honek, bidaiari honek, balio bai baitu:

1. Batetik, “Eusko-bidaztiarena” poemaren sorrera, genesisia eta barne eraketa argitzeko, hobeto esplikatzen.

2. Eta, bestetik, Lizardiren mundu ikuskeraren, pentsamoldearen ezagutzea zenbait ezagutzeko edo egiaztatzen.

Ikus dezagun aurrena lehenengo puntua, alegia, “Eusko-bidaztiarena” poemaren eta Gerbaulti eskeinitako artikulua arteko lotura genetiko eta eraiztekoa.

1. Bi testuok alderatuz, konparatuz gero, benetan uste dugu prosaz idatzitakoa, edo nahiago bada, nabigatzaile frantziarraren bidaiari, elementu, motibo, iturri giltzarri dela “Eusko-bidaztiarena” poemaren sustraiak edo idazketa baldintzak argitzeko, bere sorrera eta konposizioa ulertzeko, poemaren irudi artikulatzailearen izaera eta genesisia esplikatzen.

Lizardik, lehen aipaturiko Etxeparearen bertsoetan ezezik, Gerbaulten bidaiari ere aurkitu zuen euskararen gaitasunari buruzko mezua, ideia, poetikoki komunikatzeko behar zuen irudia, figurazio aproposa: munduan zeharreko bidaiari irudia, alegia. Gerbaulten bidaiari egiazkoan oinarriturik, Lizardik hizkuntzarekin batera egin nahi zuen desirazko bidaiari imajinatu, amestu zuen. Agian, Etxeparek eman zion ideia, mezua, euskara kanpora irrtetzeara; eta Gerbaulten bidaiari behar zuen irudia, figurazioa.

Gerbaulten bidaiaren eta poetak euskararekin batera egiten duenaren artean elementu komun ugari aurkitzen dugu.

Bi testuotan, gaia, ardatza, bidaia da —errealitate batean, irudimenezkoa, ametsezkoa bestean—, eta biotan munduari bira eman, mundua zeharkatu nahi da. Gerbaulti buruz Lizardik “lurbira osoa egin nai luke” esaten du hasieran; geroxeago, “lurbira osoa egin du”. “Eusko-bidaztiarena” poeman ere, bidaia unibertsaltasun ezaugarri janzten da. Adibidez: Maiteder —hori baita poeman euskarari ematen zaion izena— modu hiperbolikoz, bihozkada sutsu batek eragindako hiperbolez goresten da, “*ezpaitun ezer / lurbiran ederrik i bezain eder*”; lurraren gerrian, erdialdean kokaturiko basamortu zabalez mintzo da, “*Lekaro zabal lurraren gerri*”; Euskal Herritik urrutira daraman bidaia da, “*uztagun, aldikoz, Euskalerrria*”, “*baserriz landa nai aumat ager- / -arazi*”, lurretik harantzago, izarretaraino ere irits litekeen bidaia, “*goazeman zerura igoz, / izar urdiñetarañoko asmoz*”.

Gerbaulten bidaia erabat itsasoz eta belauntzi batez burutua izan bada, poetaren eta hizkuntzarenean ere itsasoa oinarritzko elementua da, bidaia itsasoa aurkituz eta zeharkatuz hasten da: “*Itsaso bare, zelai urdiña / muga-biribil, belar-urdiña*”; itsasketa edo nabigazio zantzuak tartekatzen baitira, “*Dagigun arraun*”, “*izotz bat untzi gure ibilgoa*”, eta abar.

Beraz, munduan zeharreko bidaia, itsasoa eta itsasuntzia bi bidaietan errepikatzen diren osagarriak dira.

Bestalde, bai batean, bai bestean, itsaserdiko egunsentiaren, goizaldearen edertsunak eta misterioak liluratu egiten ditu bidaiariak. Gerbaultek harriduraz kontenplatu du eguzki jaikiberriak argitutako itsasinguru exotikoa, “*goizaldean, eguzki esnaberriak lilluragarriri argituta*” -dio Lizardik. Egunsentiaren sorgindurak erakarri egiten ditu biziki poeta eta bere maitea, “*goizaldea duk sorgiña*”.

Bi bidaiotan urrutiko irleetara iristen da. Gerbault, gorago esan dugunez, Ozeano Bareko, Polinesiako irleetan lehorrerutzen da. Poeta eta bere bidai-laguna ere, beren ametsezko bidaietan, irla berorietara ailegatzen dira; horregatik dio Lizardik —poemaren zortzigarren estrofan nabigatzaile frantziarraren izena espreski aipatuz— irla horietara iristean, agian, Gerbault bera aurki lezaketela zuhaitz exotikoan azpian atseden hartzen. Hona hemen ingurugiro exotiko hori poetizatzen duen estrofa:

*Iguzkipean ugartedia...  
Ur zabalean oial zuria...  
Zuaitz arrotzen azpia,  
eun oziñek itzalia!  
Or bide zetzan Gerbault bakartia...*

Hala Gerbaultek nola gure bidaiariek itsasoan barna egindako beren bidaietan, tamaina handiko izotz-blokeak, igerbergak alegia, topatzen dituzte. Ger-

baultek —dio Lizardik artikuluan— “maiz zitun begien asegarri itxasoa ta itxas-bizidunak ezezik, legorki ikusgarriak. (...) oietako bat: «Kicker- Rock» deritzan arkaitz zuti” erraldoia. Poeta eta euskara izotz-herrietara, lurralde jela-tuetara iristean, izotz-bloke bat da beraien untzia:

*Legorra zuri, beltz itsasoa:  
izotz bat untzi gure ibilgoa...*

Alain Gerbaultek New York hiria hartu zuen eskala egiteko, kai hartzeko. Hiri erraldoi horretan amaitu zuen lehenengo bidai-aldia, eta hor itsasoratu zen bidaiaren parterik luzeenari ekiteko. Gure bidaiariak ere, Gerbaulten modura, hiri handi, nagusietara iritsi eta bertako giroa jasotzen dute:

*Iri nagusi, giza-erlauntza:  
zorapenezko aruntz-onuntza,  
sumabearra, yakintza,  
sal-eros ekurugaitza,  
gure elkar-indarrak itzuli bitza!*

Baina bi bidaiaria hauen artean sumatzen ditugun xehetasun hauez —eta beste batzuek— gain, zera azpimarratu nahi dugu: biak abentura bidaiak direla. Lizardiren ametsezko bidaiaria, Gerbaultena bezala, abentura, arrisku, ordurarte inork gauzatu ez zuen esperientzia berri gisa antolatzen da. Gerbault da bealuntzi batez eta bakar-bakarrik munduari bira ematen dion lehenengoa. Poetak euskarari eginkizun berri eta arriskutsua proposatzen dio: munduan zehar bidaiatu eta paraje eta errealtate arrotzak aurkitu, itzuli eta abestu ahal izateko.

Egia da, bai, ezkon-bidaiaria bat dela, eta, beraz, bidaiaren helburua bizi berri bat sortzea dela, poetaren eta hizkuntzaren arteko maitasunezko harremanetik sorturiko haur ugari ekartzea, alegia, bidaiaren zehar aurkituriko mundu berriak itzuliz bertso, kantu, fruitu poetiko ugari asmatzea:

*Otoi, Yauna, ibilgo-buru,  
maitasun-edermen-zitu,  
aur begi-argirik anitz bekargu;*

baina, hala ere, nahiz eta ezkon-bidaiaria gozoa izan, bidaiaria arriskuz eta abenturaz janzten da, poeta eta euskara lurralde ezezagunetan menturatzen dira, ikertu, esploratugabeko errealtatetan barna aurrera egiten dute.

Abentura horretarako, Gerbaulten bidaiaria arriskutsurako bezala, adorea, aursardia, eroapena eskatzen da. Horixe da, hain zuzen, Lizardik, bere artikuluan, Gerbaultengan nabarmentzen duena: Alain “gizakume oi-ez bat” da, “naimenuts, gogozain-uts”. Eta bidaiari frantziarraren argazkiaren aurrean harriturik dio: “Sinistu aal-diteke, gorputz orrek alako zain bizia ezkututzen dunik?” Lizardik Gerbaulten kemena eta nahimen sendoa goratzen ditu. Horrela, ulertzekoa da, poetak euskarari bidaiarako gonbidapena hitz pizgarriez, suspergarritz, beldurra alde batera uzteko eskatuz, egitea:

*Ez adi beldur, nere Maiteder:  
baserriz landa nai aunat ager-  
-arazi, bazterrik-bazter,  
arroki; (...)*

Uльтzekoa da, baita ere, Lizardik bere poema Unamunori eskeintzea. Idazle bilbotarra euskararen etorkizunaz eta gure hizkuntzak kultur modernorako duen gaitasunaz ezkor zenez, Lizardik poema hitz hauekin eskeini zion: “Unamunotar Mikel, yaun argiari, gure ausardi gorriaz yabetu dedin”.

Dena den, Lizardi eta euskararen abentura ez da zoroa, burugabea. Lizardik, poeman, baztertu egiten du bere zentzugabekeriak itsasoan amildu zen Ikaroz izaki mitologikoaren jokaera. Gure bidaiarien ausardia ez da ausarkeria. Lizardik amestutako bidaiarako, euskararekin izar urdiñetaraino iristeko, hego sendoak, ezin urtuzkoak nahi ditu.

Honenbestez, “Eusko-bidaztiarena” poemaren eta prosazko artikulua arteko, Gerbaulten bidaiaren eta poeta eta euskararen bidaiaren arteko lotura genetiko eta euzkutatzaile estuari dagokionez.

2. Gerbaulti buruzko artikulutik, gainera, Lizardiren pentsamoldeaz, bere mundu ikuskeraz zehazpen, jakingarri zenbait ondoriozta, atera daitezke.

Artikuluaren arretaz irakurritz gero, laster konturatzen gara Lizardik gogoz, izpirituz, desioz, bat egiten duela, identifikatu egiten dela, kide sentitzen dela, Gerbaulten bidaiarekin. Artikuluaren Gerbaultekiko mirespen eta harriduraz, nabigatzailearen bidaiari, egitandi edo balentriari atxikitzen zaion norbaiten idazmoldez edo tankeraz dago idatzia. Irudi du, benetan, Lizardik, bere barru-barruan, bidaia honen mineria, nostalgia, sentitzen duela, alegia, pozik egingo lukeela berak ere Gerbaultenaren moduko bidaia bat. Lizardik bere burua, Gerbaulten antzera, Gerbaultekin batera bidaiatzen ikusten du.

Lizardik, “Eusko-bidaztiarena” poeman, euskarari bere irudimenezko bidaia proposatzen dihonean, aurren-aurrea nahi duena, bilatzen duena, da, noski, esan dugunez, euskara bera gaitzea, prestatzea, “*zernaitarako*”, “*noranaiko*”. Baina —uste dugu— desiratzen duela, gartsuki, baita bidaia bera ere; amesten duela ez soilik euskara igoaraztea, baita mundu berrietaranzko bidaia exotikoa egitea ere, Gerbaultena bezalakoa. Lizardi identifikatu egiten da nabigatzaile bakartiaren bidaiarekin. Zergatik?

Lizardi ahalegin, proiektu zailen aldekoa da; itsasoa maite du, ez mendia soilik; Gerbaulten nahimen sendoak eta izadiarekiko, paraje naturalekiko erakusten duen zaletasun sutsuak erakartzen dute.

Lizardik, bere artikuluan, honela biltzen du neurri handi batean berea ere den nabigatzailearen joera hau: “Izadiaren maitale gorria, Jainkoak begi aurrean ipiñi dizkigun edertasunak zorazten dute; gizonaren egintzen alde berriz, ez du ederretsi aundirik. Batez ere ia gorroto du gizakundea, giza-landuaren izaera alegia: au da, itz batez ta erderaz esateko -gorroto du ‘zibilizazioa’...”.

Lizardik bat egiten du Gerbaultek izadiari, itsasoari, urrutiko lurraldeei eta bertako herriei, hitz bitan, naturala den guztiak duen edertasunari adierazten dion errespetu eta zaletasunean. Gerbaultez ari dela, Lizardik behin eta berriro errepikatzen du antzeko ideia: “Izadia gorri-gorrian atsegin zaio giza ikuturik gabe. Gizadiak, berriz, jare, beren oiturak eta izaera nabari; iñork azpiratu, ez aldatu, ez biurritu gabe”.

Alainek bere liburuan —jasotzen du Lizardik— argi eta garbi adierazten du irla haietako batean, atoloi haietako batean, hango “legortxo batean pozik geldituko litzatekela betirako, bertan emaztea artu, koko-ostozko txabola bat egin, ta, noizik-bein, inguruko legorretara, itxasozko ibillaldiren bat”. Lizardi, desio hori jasotzean, bere barruan, nolabait, bere desio propioa ari dela adierazten uste dugu. Lizardik, paradisu naturalak maite ditu. Agian, berak ere, leku exotiko, libre, paradisiako batean bizitzea amestu zuen.

Eta izadiarekiko zaletasunean bat egiten badu, bat egiten du baita ere Gerbaultek zibilizazioari, zibilizazio mota bati, bederen, dion gorroto edo, nahiago bada, mesfidantzarekin. Gerbaultek salatu egiten du europar, oro har, mendebaldar zibilizatuok bertako herriei eman diegun tratua, beren bizitzan eta ingurunean sortu dugun desoreka, desitxuraketa, hondamena.

Lizardik, Gerbaultekin batera, Ozeano Bareko irleetako herriei buruz ari dela, zera aitortzen du: “(...) lurbira osoan danik enda (kasta) zintzoen ta xaloena, atseginena, bai omen da ura (...). Zoragarriak omen dira. (...) gizakumerik otzan eta maitekorrenetakoak”. Eta bere buruari honako galdera hau egiten dio: “Itxasalde urrun aietan giza-landuak (gizon ‘zibilizatuak’) egindako lanari zer derizkio Alain-ek?... Bada..., geienetan negargarria dala”.

Lizardik, bere burutapenak eta Gerbaultenak gurutzatuz, elkarlotuz, modu gogorrez jarraitzen du: “Gizon zuriek zatarki atzipetu (engañatu) ta lumatu izan baitituzte gizajoak. (...) leen-leen zorionez ta pakean bertarrak bizi ziran baso, ibar ta itxas-ertz zoragarrietan, gaur aien ondakin negargarria baño ezta arkitzen : gizakume beltz banaka batzuk, ta aiek eri ta ondatuak. Eun urte baño gutxiagoan gizon zuriek ugarte aiek zearo bertarrez soildu dituzte. Jo ‘Tahiti’ deritzen ugarteetara ta an ere gizadia Alain-ek nai baño aurreratuagoa, landuagoa... Berebilla (automobilla) emendik, neskatz apañak andik, ‘nai-ta-ezin’eko etxea ‘pranko’!... ‘Tahiti’ko gizakunde (zibilizazio) berezia; ango oiturak, dantzak, jantziera, olerki zaar ederrak; guzia da galdua, ta ezin ezerk bear-bezela oien utsunea bete...”.

Era berean, Karibeko irleetako biztanleei buruz mintzo delarik, zera hau gaineratzen du kolonizazioaz: “‘Karibeen’ itxasoan barrena dabillega, leen-leengo bertarrak ikusi nai lituzke; Kolon besoak zabalik artu zuten aiek... baño badaki ongi, bat bederik ez uzteraño ondatu zituztela europear zuri arro giza-landuak, ‘zibilizatuak’!”.



Noski, aipatzen ari garen azken arazo, iritzi edo aukera ideologiko, personal eta sozial hauen planteamendua, funtsa, ez da hain simplea, askoz konplexuagoa baizik. Gerbaulten eta Lizardiren jarrerak, adierazi ditugun moduan, hein batean idealistak dira. Hemen garatu ezin ditugun ñabardurak egin beharko lirateke. Bereizi beharko lirateke zibilizazioak dituen, dakartzan alde argitsuak, onuragarriak eta alde ilunak, makurrak; kontuan hartu beharko lirateke jarrera sozial idealisten eta bizi baldintza erreal pragmatikoen arteko tirabirak; orekatu beharko lirateke aurrerapenaren, progresoareen eta naturaletasunaren arteko tentsioak; uztartu beharko lirateke herri-sustraien iraupena eta kanpoko indarren eragina ; kontuan izan beharko litzateke zein kontestutan egosi diren bai Gerbaulten, bai Lizardiren aukerak, jarrerak; eta abar. Bistan denez, azalpen edo lan honen mugak gainditzen dituzten arazoak dira hauek.

Dena den, ikusi edo zirriboratu dugu zein aldetara makurtzen den Lizardiren aukera, zein den Lizardik mutur edo polo horien artean nabarmentzen dituen aukerak, bere idazkietan, behintzat. Buka dezagun aitortuz Lizardik bazituela munduan zeharreko bidaia desiratzeko , amesteko, benetako motiboak, arrazoiak. Lizardik honela amaitzen du Gerbaulti buruzko artikulua: “Eztezu emen gauza onik, Alain adiskidea... Koralezko ugarte aietarik batean koko-ostoz txabolatxo bat egin artean, ezta zuretzat pakerik...”.

Agian, Lizardik, azken hitz hauekin, bere sentimendua, bere desio propioa adierazten ari zen. Lizardik, dudarik ez, Euskal Herria zuen helburu, Euskal Herrian bizi nahi zuen, herri honi bere ahalegin guztiak eskaini. Baina, halaber, urrutiko koralezko irlak, munduan zeharreko bidaia —desioz, irudimenez, besterik ez, gauzatu ahal izan zuen bidaia—, bere ametsetariko bat zen.